



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

## USURBILGO UDALA

### HFP/1030/2021 AGINDUAREN ESPARRU BARRUKO IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA

#### EDUKIAK

1.- ARAUDI APLIKAGARRIA.....	2
2.- TESTUINGURUA.....	3
3.- KONTZEPTUAK ETA DEFINIZIOAK.....	4
4.- AUTOEBALUAZIO GALDETEGIA.....	6
5.- PLANAREN EREMU OBJETIBOA.....	8
6.- APLIKAZIO EREMU SUBJETIBOA.....	8
7.- ORGANO ARDURADUNA(K).....	8
8.- INTERES GATAZKEI AURRE EGITEKO NEURRIAK.....	9
A)PREBENTZIOA.....	10
B)ZUZENKETA.....	13
9.- IRUZURRA ETA USTELKERIA PREBENITU, ANTZEMAN ETA ZUZENTZEKO NEURRIAK: IRUZURRAREN AURKAKO ZIKLOA.....	13
A) PREBENTZIOA, hots, iruzurraren hondar arriskua maila onargarri bateraino murrizteko neurriak.....	14
B) DETEKZIOA.....	16
C) ZUZENKETA.....	16
D) PERTSEGITZEA.....	17
10.- PLANAREN JARRAIPENA ETA ALDIAN BEHINGO KONTROLA.....	17
I ERANKINA. ARRISKU MAPA.....	19
II ERANSKINA. BANDERA GORRIEN CHECKLIST ZERRENDA.....	23



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

## 1.- ARAUDI APLIKAGARRIA.

2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikulua eta, haren arabera, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua, Europar Batasunaren finantza interesak babeste aldera eta Espainia Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren (BEM) funtsen onuraduna den heinean, betebeharrak ezarri zioten Espainiari: Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) neurrien egikaritzean parte hartzen duten erakunde erabakitzaile zein betearazle guztiek **“Iruzuraren aurkako neurrien plan”** bat izan behar dute. Plan horrek eta, ondorioz, plan jakin honek barne hartzen dituzten helburuekin bermatu egin behar da, jarduketara eremu bakoitzean, funtsak arau aplikagarrien arabera erabiltzen direla eta, zehazki, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak behar bezala prebenitu, antzeman eta zuzentzen direla.

Hona hemen, besteak beste, Plan honi aplikatzekoak diren araudi aipagarriak:

### 1.- Europako araudia

- 2021/241 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena, eta hura garatzen duen gainerako araudia.
- 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2018ko uztailaren 18koa, Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatzeko finantza arau buruzkoa (EBaren Finantza Erregelamendua). 2018ko uztailaren 30eko EBAO, 193. alea.
- 2017/1371 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2017ko uztailaren 5koa, Europar Batasunaren finantza interesei eragiten dien iruzurraren aurka Zuzenbide penalaren bidez borrokatzeari buruzkoa (PIF Zuzentaraua). 2017ko uztailaren 18ko EBAO, 198. alea.

### 2.- Barne araudia

- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30koa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko presazko neurriak onartzen dituena.
- HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa sistema eratzen duena.
- HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, estatuko, autonomia erkidegoko eta tokiko sektore publikoko erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituena, mugarrak eta helburuak betetzen direla egiaztatzeko, baita Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren osagaien neurrien aurrekontu eta kontabilitate exekuziorako ere.
- HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko prozeduretan interes gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL) (64. artikulua).
- Estatuko Kontratazio Publikorako Aholku Batzordearen 2021eko abenduaren 23ko jarraibidea, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik datozen funtsekin finantzatzeko diren kontratuen espediente eta agiri zuzentzaileetan txertatu beharreko alderdiei buruzkoa.



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

### 3.- Iruzuraren Aurkako Plana egiteko baliatu diren beste agiri batzuk:

- a) Iruzur arriskuaren ebaluazioa eta iruzurraren aurkako neurri eraginkor eta proportzionatuak (DG REGIO) EGESIF\_14-0021-00; 16/06/2014 (Guidance Note on fraud risk assessment for 2014-2020). Eskualde Garapenerako Europako Funtsari, Europako Gizarte Funtsari, Kohesio Funtsari, Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsari eta Itsaso eta Arrantzako Europako Funtsari buruzko xedapen komunak ezartzen dituen, eta Eskualde Garapenerako Europako Funtsari, Europako Gizarte Funtsari, Kohesio Funtsari eta Itsaso eta Arrantzako Europako Funtsari buruzko xedapen orokorrak ezartzen dituen, eta Kontseiluaren 1083/2006 Erregelamendua (EE) indargabetzen duen 2013ko abenduaren 17ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 Erregelamenduaren (EB) 125.4 c) artikulua betez garatutako gida. [https://ec.europa.eu/regional\\_policy/es/information/publications/guidelines/2014/fraud-risk-assessment-and-effective-and-proportionate-anti-fraud-measures](https://ec.europa.eu/regional_policy/es/information/publications/guidelines/2014/fraud-risk-assessment-and-effective-and-proportionate-anti-fraud-measures).
- b) Batzordearen Komunikazioa (2021/C 121/01), interes gatazkak Finantza Araudiarekin bat ekin eta kudeatzeko moduari buruzkoa. [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52021XC0409\(01\)&from=ES](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52021XC0409(01)&from=ES).
- c) OLAF Compendium of Anonymised Cases – Structural Actions (Kasu anonimoen bilduma: ekintza estrukturalak). <https://ec.europa.eu/sfc/sites/default/files/sfc-files/OLAF-Intern-2011.pdf>.
- d) OLAF practical guide on conflict of interest (interes gatazkari buruzko gida praktikoa). <https://ec.europa.eu/sfc/sites/default/files/sfc-files/guide-conflict-of-interests-ES.pdf>.
- e) OLAF practical guide on forged documents (agiriaren faltsifikazioari buruzko gida praktikoa). <https://www.interreg-croatia-serbia2014-2020.eu/wp-content/uploads/2019/05/Guide-on-forged-documents.pdf>.
- f) 1/2017 Komunikazioa, apirilaren 6koa, Iruzuraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalarena, Europar Batasuneko funtsek osorik edo zati batean finantzatutako proiektu edo operazioei lotutako ustezko iruzur edo irregulartasun egitateen egintzen jakinaren gainean dauden pertsonen jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa. <https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-es/snca/Documents/ComunicacionSNCA06-04-2017Canaldenuncias.pdf>.

## 2.- TESTUINGURUA

**HFP/1030/2021 Aginduak, irailaren 29koak, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa sistema eratzen duenak**, xedatutakoarekin bat, iruzurraren aurkako Plan honek kontuan hartu ditu 6. artikuluko 5. apartatuan jasotako **gutxieneko eskakizunak**, eta horrela:

1. Usurbilgo Udaleko alkateak onetsi du, funtsen erakunde erabakitzaile edo betearazlearen ordezkari moduan.
2. Modu proportzionatuan eta “*iruzurraren aurkako ziklo*” delakoaren lau funtsezko elementuen inguruan egituratu ditu iruzurraren aurkako neurriak: **prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta pertsegitzea**.



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

3. **Adjudikatu zaizkion funtsak gauzatzeko funtsezko prozesuetan iruzur arriskua, inpaktua eta probabilitatea ezagutzeko ebaluazio bat** aurreikusten du, bai eta ebaluazio horren berrikusketa ere, urtean behin, eta, nolana ere, edozein iruzur kasu antzematean edo hautatutako prozeduretan edo langileetan aldaketa nabarmenak gertatzen diren bakoitzean.
4. **Prebentzio neurri egoki eta proportzionatuak definitzen ditu**, egoera jakinetara egokituak, iruzurraren hondar arriskua maila onargarri bateraino murrizteko.
5. **Detekzio neurriak** aurreikusten ditu, alerta seinaleen arabera, eta horien modu eraginkorrean aplikatzeko prozedura definitzen du.
6. Iruzur kasuen susmoak izatekotan, **neurri zuzentzaile** egokiak definitzen ditu, horiek komunikatzeko mekanismo argiekin.
7. **Iruzur kasu susmagarriak jarraitzeko prozesu egokiak** ezartzen ditu, eta iruzurrez gastatu ahal izan diren Europar Batasuneko funtsak berreskuratzeko prozesu egokiak ere.
8. **Jarraipen mekanismoak** definitzen ditu, iruzur eraginkor edo potentzialarekin lotutako prozesu, prozedura eta kontrolak berrikusteko, eta informazio hori iruzur arriskuaren ebaluazioren berrikusketara eramateko.
9. Zehazki, **interes gatazkak prebenitu eta zuzentzeko prozedurak definitzen ditu**, Europar Batasunaren Finantza Erregelamenduaren (2018/1046, 2018ko uztailaren 18koa, Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatzeko finantza arauari buruzkoa) 61. artikuluko 1. eta 2. apartatuan xedatutakoaren arabera. Hauek ditu barne:
  - 9.a **Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena**, BEEParen gauzatze prozeduretan parte hartzen dutenek izenpetua,
  - 9.b **nagusi hierarkikoari** egon litekeen edozein interes gatazka potentzialen **berri emateko konpromisoa**, eta, baita ere,
  - 9.c organo horrek kasu bakoitzean egokia den **erabakia hartzeko** konpromisoa.

Prebentzio eta detekzio neurriak Toki Erakunde honek zehaztu ditu, erakundearen ezaugarri espezifikoaren arabera, betiere Europar Batasunaren interesen babes egokia bermatuz eta Europako zein Espainiako araudian eta bertako erakundeek Europar Batasunaren finantza interesen babesaren inguruan hartu dituzten edo har ditzaketen erabakiak zorrozki errespetatuz.

### 3.- KONTZEPTUAK ETA DEFINIZIOAK

Europar Batasunaren finantza interesei eragiten dien iruzurraren aurkako borrokari buruzko 2017/1371 (EB) Zuzentarauak (PIF Zuzentaraua), Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatzeko finantza arauari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua (Europar Batasuneko Finantza Erregelamendua) eta HFP/1030/2021 Aginduaren III.C Eranskinak jasotzen dituzten **iruzurraren, ustelkeriaren eta interes gatazkaren** definizioak kontuan hartuta, honela definitu dira kontzeptu horiek:

#### 1. INTERES GATAZKA.

##### a) Kontzeptua.



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak, 2018ko uztailaren 18ak, Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatzeko finantza arauak buruzkoak (Finantza Erregelamendua), 61. artikuluan xedatutakoarekin bat, interes gatazka agertzen da *“aurrekontuaren betearazpen eta kudeaketan –horren barne direla prestatzeko egintzak, auditoretza eta kontrola– zuzenki, zeharka eta modu partekatuan parte hartzen duten finantza agenteek eta gainerako pertsonak beren eginkizunen gauzatze inpartzial eta objektiboa arriskuan ikusten dutenean, familia arrazoiak, arrazoi afektiboak, afinitate politiko edo nazionalak, interes ekonomikoak edo interes pertsonaleko beste edozein zuzeneko zein zeharkako arrazoi direla eta”*. Maila guztietako agintari nazionalak dagokie interes gatazka potentzialak saihestu eta/edo kudeatzea.

Ondorioz:

- Partida administratibo eta operatibo guztiei eta kudeaketa metodo guztiei aplikatu behar zaie interes gatazka hori;
- Interes gatazka barne hartzen ditu zuzeneko zein zeharkako interes pertsonal guztiak; eta
- Interes gatazka potentzial moduan interpretatzen den edozein egoeraren aurrean, neurriak hartu behar dira.

#### b) Interes gatazka potentzialen barne egon litezkeen eragileak:

- Kudeaketa, kontrol eta ordainketa lanak gauzatzen dituzten **enplegatu publikoak**, bai eta horietako eginkizunen bat eskuordetzen zaien gainerako agenteak ere.
- BEMaren funtsekin finantzatzen diren jarduketan **onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratistak**, baldin eta beren interes propioen mesedetan eta Europar Batasunaren finantza interesen aurka jardun badezakete, interes gatazka baten esparruan.

#### c) Interes gatazka posibleen sailkapena:

Gatazka mota hauek hartu dira kontuan:

- Itxurazko interes gatazka: langile publiko edo onuradun baten interes pribatuak bere eginkizun edo betebeharren gauzatze objektiboa arriskuan jar dezaketenean gertatzen da, azkenean pertsona horren jokabide, portaera edo harremanen alderdi zehatzekin lotura identifikagarri eta indibidualik (edo alderdi horien gaineko ondorioz) aurkitzen ez bada ere.
- Interes gatazka potentziala: langile publiko edo onuradun baten interes pribatuen izaera kontuan hartuta, etorkizunean erantzukizun ofizial jakinak bere gain hartu behar izatekotan, interes gatazka agertzeko arriskua dagoenean gertatzen da.
- Benetako interes gatazka: langile publiko baten betebeharrak publikoaren eta interes pribatuen arteko gatazka dagoenean agertzen da, edo langile publiko batek bere betebeharrak eta erantzukizun ofizialen gauzatzean modu desegokian eragin dezaketen interes pertsonalak dituztenean.

## 2. IRUZURRA ETA USTELKERIA.

2017/1371 (EB) Zuzentarauak, Europar Batasunaren finantza interesari eragiten dien iruzurraren aurkako borrokari buruzkoak (aurrerantzean, PIF Zuzentaraia), xedatzen du Europar Batasuneko estatuak beharrezkoak diren neurriak hartuko dituztela Europar Batasunaren finantza interesari eragiten dien iruzurra **arau hauste penala izan dadin** ziurtatzeko, betiere nahita egin bada eta 7. artikuluko zehapen araubidea zehaztuz. Aurreikuspen hori betez, Zuzentaraia hori Espainiako



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

ordenamendu juridikora eraman da 1/2019 Lege Organikoaren bidez, otsailaren 20koa, Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena finantzen eta terrorismoaren eremuetako Europar Batasunaren zuzentarauen transposizioa egiteko eta nazioarteko arazoei ekiteko.

2017/1371 (EB) Zuzentarauaren (PIF) 3.1 artikulua araberan, gastuen arloko iruzurraren definizioak barne hartzen ditu "honako hauen inguruko ekintza eta ez egite guztiak:

- **Faltsuak, zehaztugabeak edo osatugabeak diren adierazpen edo dokumentuak erabili edo aurkeztea**, Europako Erkidegoetako aurrekontu orokorretik edo Europako Erkidegoek beraiek edo haien kontura kudeatutako aurrekontuetatik datozen funtsak behar ez bezala jaso edo atxikitzeke helburuarekin.
- **Informazio bat jakinarazteko berariazko obligazioa ez betetzea**, helburu berarekin.
- **Funts horiek berak jatorrizko xedeak ez diren beste xede batzuetarako desbideratzea**".

Zehaztu egiten da **irregulartasun batek ez dakarrela, halabeharrez, iruzur posible bat; izan ere, intenzionalitatea ezinbestekoa da iruzurra gertatzeko, baina ez irregulartasun baterako.**

2988/95 (EE, Euratom) Erregelamenduak, Kontseiluarenak, 1995eko abenduaren 18koak, Europako Erkidegoen finantza interesen babesari buruzko 1.2 artikuluan, hau xedatzen du: "irregulartasuna izango da Erkidegoen aurrekontu orokorrari edo haien administratutako aurrekontuei kalteak eragiten dizkien eta eragile ekonomikoak egile dituen egite nahiz omisioetatik eratorritako Europako Erkidegoko Zuzenbidearen urraketa oro, hala zuzenean Erkidegoen kontura jasotako berezko baliabideen diru sarrerak murriztu edo kentzearen ondoriozkoak, nola gastu bidegabeen ondoriozkoak".

#### **4.- AUTOEBALUAZIO GALDETEGIA (IRUZURRAREN AURKAKO PLANAREN GUTXIENKO ESTANDARRA)**

HFP/1030/2021 Aginduaren arabera, Europak eskatzen duen gutxieneko estandarren eskakizunak betez, hau da autoebaluazio galdetegia:



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

HFP/1030/2021 AGINDUAREN II.B.5 ERANSKINA  
Interes gatazkak, iruzurra eta ustelkeria prebenitzeko testa

Galdera	Betetze maila			
	4	3	2	1
1. "Iruzzarren aurkako neurrien planik" ba al da, erakunde betearazle edo erabakitzaileak, dagokion jarduketa eremu barruan, kasuko funtsak arau aplikagarrien arabera erabili direla ziurtatu eta deklaratzeko, batez ere iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeari dagokionez?				
2. Dagokion "Iruzzarren aurkako plana" egikaritze maila guztietan aplikatzen dela egiaztatu da?				
<b>Prebentzioa</b>				
3. Iruzzarren aurka borrokatzeko konpromisoa berresten duen maila goreneko deklaraziorik ba al da?				
4. Arrisku espezifikoak, horien inpaktua eta gertatzeko probabilitatea identifikatzen dituen autoebaluazio bat egiten da eta aldian behin berrikusten da?				
5. Kode etiko bat jakinarazi al da eta oparien politikaren berri eman da?				
6. Etika publikoa sustatzen duen eta iruzurra antzematea errazten duen prestakuntzarik eskaintzen da?				
7. Interes gatazkak izapidetzeko prozedura bat egin da?				
8. Interes gatazkarik ezaren adierazpen bat betetzen da esku hartzen duten pertsona guztientzat?				
<b>Detekzioa</b>				
9. Iruzur adierazleak edo alerta seinaleak (bandera gorriak) definitu dira eta horiek antzemateko moduan dauden langileei jakinarazi zaizkie?				
10. Datuen prospekzioa egiteko edo arriskuak zenbatesteko tresnak erabiltzen dira?				
11. Edozein interesdunen eskura dagoen salaketak aurkezteko kanalik ba al da?				
12. Salaketak aztertu eta neurriak proposatzeaz arduratzen den				



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

unitaterik ba al da?				
<b>Zuzenketa</b>				
13. Iruzur gorabehera ebaluatzen da eta sistemiko edo puntual moduan sailkatzen da?				
14. BEMek finantzatu dituen edo finantzatuko dituen eta iruzurra izan duten proiektuak edo horien zatiak baztertu egiten dira?				
<b>Pertsegitzea</b>				
15. Gertatutakoa eta hartutako neurriak erakunde betearazleari, erakunde erabakitzaileari edo agintaritza arduradunari jakinarazten zaizkio, kasuaren arabera?				
16. Egokia denean, zigortzeko moduko kasuak agintaritza publiko nazionalen, Europar Batasuneko agintaritzen edo fiskaltza eta auzitegi eskudunen aurrean salatzen dira?				
<b>Puntuen guztizko partziala</b>				
<b>Puntuen guztizkoa</b>				
<b>Gehieneko puntuak</b>	16			
<b>Puntu erlatiboak (puntuen guztizkoa/gehieneko puntuak)</b>				

Oharra: 4 betetze maila altuena da, eta 1, baxuena.

Adierazitako galdetegiaren arabera, jarraian ageri den Iruzuraren Aurkako Planaren eredu estandar/oinarrizkoa proposatzen da.

## 5.- PLANAREN EREMU OBJEKTIBOA

**Europako funtsen kudeaketarako iruzurraren aurkako neurrien** plan honen oinarritzko helburua da Usurbilgo Udalak kudeatuko eta baliatuko dituen BEEP planeko funtsak iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, antzemateko eta zuzentzeko arau aplikagarrien arabera erabiltzen direla ziurtatzea. Horretarako, erantzukizun, gardentasun, baliabideen optimizazio, betetze, integritate eta helburuen kudeaketa printzipioak barne dituen antolaketa eredu bat lortzeko estrategia bat dokumentatu da, haren jarraipen eta kontrolarekin batera.

## 6.- APLIKAZIO EREMU SUBJEKTIBOA

Iruzuraren Aurkako Plan honen neurriak diru publikoaren kudeaketan parte hartzen duten toki erakunde honetako pertsona guztiei aplikatuko zaizkie, eta, zehazki, BEEP planaren finantzaketa duten proiektuen diseinu, kudeaketa, prestaketa edo gauzatzean edonolako esku hartzen duten pertsona guztiei.

Helburu horrekin, arlo horretako erantzukizunak identifikatu dira erakundearen sail guztietan, eta prozesu eta arrisku mapa bat ezarri da, hartuko diren prebentzio neurriak identifikatuta.

## 7.- ORGANO ARDURADUNA(K)





Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

Plan hau behar bezala aplikatzen dela bermatze aldera, jarraian adierazitako organoa(k) sortu da/dira, salaketak aztertu eta egokiak diren neurriak proposatzeko.

Planak eginkizunen esleipen orokorra egiten du udal antolaketaren maila guztietan, eta integritatearen zein arriskuen prebentzioaren arloetan eginkizun espezifikoak dituzten organoak zehazten ditu.

Integritate eta iruzur arriskuen prebentzioaren arduradunak eginkizun eta erantzukizun hauek izango ditu, besteak beste:

- Plana eguneratzeko proposamenak formalizatu eta/edo horien berri ematea.
- Autoebaluazio lantegiak bultzatu, koordinatu eta gauzatzea.
- Planean aurreikusitako neurrien egikaritzea sustatzea.
- Aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak identifikatu eta horien premia-kotasuna erabakitzea.
- Informazio kudeatzeko prozesuak ezarri eta garatzea (erreklamazioak, salaketak, etab.).
- Informazioa lehenago aipatu diren goragoko organoei helaraztea.

### **Udaleko Iruzuraren Aurkako Batzordea**

Plan honen jarraipenaz eta betetzea bermatzeaz arduratzen den organoa izanda, osaera eta eginkizun hauek ditu:

#### **-Osaera.**

- a) Udal kontu hartzaile nagusia.
- b) Udal idazkari nagusia.
- c) Kontratazio teknikaria.
- d) Giza Baliabideetako teknikaria
- e) Idazkaritza departamentuko langile bat, Iruzuraren Aurkako Batzordeko idazkari moduan jardungo duena.
- f) Halaber, gonbidatu moduan parte hartuko dute ere bileraren irismenaren arabera deialdia jasotzen duten beste udal langile batzuek, proiektuaren eta/edo azpiproiektuaren organo kudeatzaileko ordezkariak edo Batzordeak beharrezkotzat jotzen dituen gainerako pertsonak.

#### **-Eginkizunak:**

- Autoebaluazioa egitea.
- Salaketetarako postontzia abian jartzea.
- Prestakuntza plana egitea.
- Adierazpen instituzionala Osoko Bilkurari helaraztea eta webgunean argitaratzea.
- Jasotako salaketa posibleak hartu eta aztertzea.
- Dagokion nagusi hierarkikoari (normalean, alkatea) helaraztea.
- Zuzenketa neurriak hartu eta, egokia bada, pertsegitzea.
- Beharrezkoa bada, prozeduren eskuliburu bat egitea.
- Beste batzuk.

## **8.- INTERES GATAZKEI AURRE EGITEKO NEURRIAK**



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

## A PREBENTZIOA

Interes gatazkak prebenitzeko toki erakundeak hartutako neurrien artean daude:

### 1.- Langileei informazioa ematea interes gatazka moten eta horiek saihesteko moduen inguruan.

- Iruzuraren Aurkako Plana onestea.
- Plana kargu politikoei, funtzionarioei eta Udaleko langileei aurkezteko saioa antolatzea.
- Iradokizunak edo salaketak jasotzeko postontzia sortzea.
- Iruzuraren Aurkako Planerako, Iruzuraren Aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalaren (SNCA) "Infraude" salaketa kanalerako eta abarretarako estekak webgunean txertatzea.

**2.- Dagozkien prozeduretan esku hartzen dutenentzat interes gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA) betetzea**, honako hauen sinadurarekin: kontratazio organoko arduraduna, lizitazio dokumentuak/oinarriak eta/edo deialdiak idazten dituzten langileak, eskabide/eskaintza/proposamenak ebaluatzen dituzten adituak, eskabide/eskaintza/proposamenak ebaluatzeko batzordeetako kideak eta prozeduretan parte hartzen duten gainerako kide anitzeko organoak. Azken kasu horretan, adierazpena dagokion bileraren hasieran egingo dute bertan parte hartzen duten guztiek, eta aktan jasota geldituko da.

IGEA bete beharko dute ere, kasuko laguntzaren onuradunekin batera, kontratistek, azpikontratistek, etab.

Hona hemen Iruzuraren Aurkako Plan honek sustatzen dituen IGEA ereduak, HFP/1030/2021 edo HFP/55/2023 Agindu aplikagarriaren arabera:

### Interes gatazkarik ezaren adierazpenaren (IGEA) ereduak – HFP/1030/2021 Agindua

Espedientea:

Kontratua/dirulaguntza.

Gorago adierazitako kontratazio/dirulaguntza prozeduraren inpartzialtasuna bermatze aldera, beherago sinatu duenak/dutenek honako hau adierazten du(te), espedientearen prestaketa eta izapidetze prozesuko parte hartzaile moduan:

Lehena. Honen berri izan duela/dutela:

1. 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak, uztailearen 18koak (Europar Batasunaren finantza Erregelamendua), 61.3 artikuluan ("Interes gatazka") honako hau ezartzen duela: "interes gatazka egongo dela eginkizunen gauzatze inpartzial eta objektiboa arriskuan badago familia arrazioak, arrazoi afektiboak, afinitate politiko edo nazionalak, interes ekonomikoak edo interes pertsonalekin zuzeneko edo zeharkako lotura duten gainerako arrazioak direla eta".
2. 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 64. artikulua ("Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes gatazken prebentzioa") helburu hauek dituela: lehiaren edozein distorsio saihestea, prozeduraren gardentasuna bermatzea eta hautagai eta lizitatzailerak tratatu berdina jasotzen dutela ziurtatzea.
3. 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 23. artikuluan xedatzen du prozeduran parte hartzetik abstenitu beharko direla "hurrengo



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

apartatuan aipaturiko egoeretako batean dauden Administrazioetako agintari edo langileak".  
Hauek dira egoera horiek:

3.a Interes pertsonala izatea aztertuko den gaien edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

3.b Ezkontza lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.

3.c Aurreko apartatuan aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

3.d Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartu izana.

3.e Gaiaren zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan.

Bigarrena. Ez dagoela/daudela interes gatazkatzat jo daitekeen inolako egoeratan, Europar Batasuneko Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikulua araberak, eta ez dagoela/daudela ere urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan aipatzen diren eta lizitazioari/esleipenari eragin diezaioketen abstenitzeko egoeratan.

Hirugarrena. Edozein interes gatazka edo horrelakorik sortzen duen edo sortu dezakeen edozein abstenitzeko kausa kontratazio organoari/ebaluazio batzordeari jakinaraziko diola/diotela berehala.

Laugarrena. Badakiela/badakitela interes gatazkarik ezaren adierazpen bat faltsua dela frogatuz gero, horrek araudi aplikagarrian ezarritako diziplina edo administrazio ondorioak edo ondorio juridikoak ekarriko dituela.

(Data eta sinadura, izen-abizenak eta NANA)

### ***Interes gatazkarik ezaren adierazpenaren (IGEA) eredia – HFP/55/2023 Agindua***

Espedientea:

Kontratua/dirulaguntza.

Gorago adierazitako kontratazio/dirulaguntza prozeduraren inpartzialtasuna bermatze aldera, beherago sinatu duenak/dutenek honako hau adierazten du(te), espedientearen prestaketa eta izapidetze prozesuko parte hartzaile moduan:

Lehena.

Honen berri izan duela/dutela:



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

1. 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak, uztailaren 18koak (Europar Batasunaren finantza Erregelamendua), 61.3 artikuluan (“Interes gatazka”) honako hau ezartzen duela: “interes gatazka egongo da eginkizunen gauzatze inpartzial eta objektiboa arriskuan badago familia arrazioak, arrazio afektiboak, afinitate politiko edo nazionalak, interes ekonomikoak edo interes pertsonalekin zuzeneko edo zeharkako lotura duten gainerako arrazioak direla eta”.

2. 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak, 64. artikuluan (“Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes gatazken prebentzioa”), honela definitzen duela interes gatazka: “kontratazio organoarentzat lan egiten duten eta aldi berean lizitazio prozeduran parte hartze bat izan dezaketen edo haren emaitzan eragina izan dezaketen langileen edozein egoera, lizitazio prozeduraren testuinguruan haien inpartzialtasuna edo independentzia itxura batean zalantzatan jar dezakeena interes finantzario, ekonomiko edo pertsonala zuzenean edo zeharka izateagatik”.

3. 31/2022 Legeak, abenduaren 23koak, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrenak, honako hau xedatzen duela ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan: “Interes gatazka arriskuaren analisi sistematiko eta automatizatua aplikagarria izango zaie erakunde erabakitzaile, betearazle eta instrumentalentzat lan egiten duten enplegatu publiko eta gainerako langileei, baldin eta kontratuak adjudikatzeko edo dirulaguntzak emateko aipatu prozeduretan parte hartzen badute, beren kabuz edo kide anitzeko organoetako kide izanez”.

4. Aipatu ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriko 4. apartatuak honako hau xedatzen duela:

– “Tresna informatikoaren bidez aztertuko dira zuzeneko edo zeharkako familia harreman edo sozietate lotura posibleak, interes gatazka izan litezkeen interes pertsonal edo ekonomikoak ager badaitezke aurreko apartatuan adierazitako pertsonen eta prozedura bakoitzeko parte hartzaileen artean”.

– “Harreman edo loturak identifikatzeko, tresnak barne izango ditu, besteak beste, otsailaren 12ko 241/2021 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d).iii) artikuluan aipatzen diren pertsona juridikoen titulartasun errealeko datuak, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datu baseetan daudenak, eta baita Notario eta Erregistratzaileen Elkargo Profesionalekin izenpetutako hitzarmenen bidez lortutako datuak ere”.

Bigarrena.

Adierazpen hau sinatzeko momentuan eta eskura duen/duten informazioa kontuan hartuta, ez dagoela/daudela lizitazio prozeduran/dirulaguntzen esleipenean eragina izan dezakeen inolako interes gatazka egoeratan, ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren laugarren apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

Hirugarrena.

Abian den prozeduran zehar gerta litekeen edo ezagutu dezakeen/dezaketen edozein interes gatazka kontratazio organoari/ebaluazio batzordeari jakinaraziko diola/diotela



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

berehala.

Laugarrena.

Badakiela/badakitela interes gatazkarik ezaren adierazpen bat faltsua dela frogatuz gero, horrek araudi aplikagarrian ezarritako diziplina edo administrazio ondorioak edo ondorio juridikoak ekarriko dituela.

(Data eta sinadura, izen-abizenak eta NANA)

**3.- Informazioa egiaztatzea** merkataritza erregistroen datu baseen bidez, erakunde nazionalen eta Europar Batasuneko erakundeen datu baseen bidez, langileen espedienteen bidez (datuak babesteko arauak errespetatuz) edo datuen prospekzioarako ("data mining") tresnak baliatuta, hala nola MINERVA, edo arriskuak zenbateteko tresnak (ARACHNE).

**4.- Barne araudia zorrozki aplikatzea** (dagokion estatuko, erkidegoko edo tokiko araudia), zehazki, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 53. artikulua, printzipio etikoei buruzkoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua, abstentzioari buruzkoa, eta gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea.

## **B) ZUZENKETA**

Neurri hauek jaso dira antzemandako interes gatazka posibleak jorratzeko:

1. **Interes gatazka bat izan daitekeen egoera jakinaraztea, nagusi hierarkikoak idatziz berretsi dezan gatazkarik ikusten duen ala ez.** Gatazka bat dagoela uste badu, pertsona hori gaiarekin lotutako jarduera guztietatik aldentzeko aginduko du, eta Zuzenbide aplikagarriaren arabera egokia den beste edozein neurri gehigarri hartuko du.

Jakinarazpen hori zuzenean nagusi hierarkikoari, Udaleko Iruzuraren Aurkako Batzordeari edo iradokizunak eta salaketak jasotako postontzian egin ahalko da.

2. **Barne araudiaren aplikazio zorrotza** (dagokion estatukoa, erkidegokoa edo tokikoa), zehazki, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikulua, errekusazioari buruzkoa, eta gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea.

## **9.- IRUZURRA ETA USTELKERIA PREBENITU, ANTZEMAN ETA ZUZENTZEKO NEURRIAK: IRUZURRAREN AURKAKO ZIKLOA**

BEMaren Erregelamenduko 22. artikulua araberan, Europar Batasuneko estatuak egokiak diren neurriak hartu beharko dituzte iruzurra eta ustelkeria prebenitu, antzeman eta zuzentzeko, eta legezko egintzak abiaraziko dituzte bidegabe jabetutakoak izan litezkeen funtsak berreskuratzeko. BEEParen jarduketan gauzatzean parte hartzen duten erakundeek iruzurraren aurkako neurri proportzionatuak hartu behar dituzte, iruzurraren aurkako zikloko lau funtsezko elementuen inguruan egituratuak: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta pertsegitzea.

Gauzak horrela, Plan honek jarraian adierazitako neurriak proposatzen ditu:



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

**A) PREBENTZIOA**, hots, iruzurraren hondar arriskua maila onargarri bateraino murrizteko neurriak.

### 1.- Kultura etiko bat garatzea.

Adierazpen instituzional baten bidez sustatuko dira integritatearen, objektibotasunaren, kontuak ematearen eta zintzotasunaren moduko balioak. Adierazpen hori **jokabide kode** bihurtuko da, erakundeko kide guztiengana eta herritar guztiengana ere iristeko.

Atal honek barne dituen jarduketan artean daude ere interesdun guztien eskura dagoen **salaketetarako postontzi bat sortzea** eta **SNCAk gaitutako salaketa kanalaren (Infofraude)** berri ematea. Kanal hori Europako funtsei eragiten dieten iruzur edo irregulartasunak jakinarazteko sortu da eta Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko atal espezifiko du, kontuan hartuta 1/2017 Komunikazioak, apirilaren 6koak, Europar Batasuneko funtsek osorik edo zati batean finantzatutako proiektu edo operazioei lotutako ustezko iruzur edo irregulartasun egitateen egintzen jakinaren gainean dauden pertsonak jarraitu beharreko prozedurari buruzkoak, xedatutakoa.

Aipatu Komunikazioaren arabera, “Europar Batasunaren finantza interesen iruzurraren aurkako borrokarako esanguratsua den edozein informazio agintaritza eskudunei helaraztea errazte aldera, eta arlo horretan Iruzurraren Aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalari (SNCA) dagozkion koordinazio eginkizunen esparru barruan, Europar Batasunetik datozen funtsen kargura osorik edo zati batean finantzatutako proiektu edo operazioei lotutako ustezko iruzur edo irregulartasun egitateen berri duen edozein pertsonak jakinarazi ahalko dizkio egitateok Iruzurraren Aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalari, bitarteko elektronikoen bidez, Zerbitzu horrek webgune honetan gaitutako kanala baliatuz:

<http://www.igae.pap.minhfp.gob.es/sitios/igae/es-ES/Paginas/Denan.aspx>.”

### 2. Prestakuntza eta kontzientziazioa.

**Prestakuntza ekintzak** abiaraziko dira maila hierarkiko guztietarako, horien barne direla ezaguerak eskuratu eta transferitzeko bilerak, mintegiak, lantaldeak, etab. Arreta berezia jarriko dute arriskuen identifikazio eta ebaluazioan, kontrol espezifikoaren ezarpenean, iruzurra antzematen den kasuetarako jarduketan, erreferentziako kasu praktikoaren identifikazioan, etab.

### 3. Erakundeko agintarien inplikazioa.

Agintari horiek, Iruzurraren Aurkako Plan honi erantsitako Adierazpenaren bidez, berretsiko dute iruzurraren aurka duten konpromiso irmoa eta iruzurraren aurreko tolerantziarik eza.

Agintariak planteamendu proaktibo, egituratu, espezifiko eta eraginkorra garatuko dute, iruzur arriskua kudeatzeko erabakiak hartzeko.

## ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN EREDU POSIBLEA

Usurbilgo Udalak, Berreskuratze, Eraldaketa, eta Erresilientzia Planaren funtsen onuraduna den tokiko erakunde gisa, Iruzurraren Aurkako Planarekin batera onartu du, Osoko Bilkuran, jarraian ageri den

### “ADIERAZPEN INSTITUZIONALA”



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

Usurbilgo Udala erakunde ireki, garden, irisgarri eta zintzoa da eta herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzu eta politika publikoen etengabeko hobekuntzarekin konprometitua dago. Era berean, etorkizuneko aukerak eta mundu guztiaren aurrerapen sozial, ekonomiko eta pertsonalerako aukerak sortzeko gai da. Horretarako, balio hauek bete eta bere langileei zein herritarrei helaraziko dizkie, bere jardueraren garapenean:

- Zintzotasuna eta dedikazioa, jokabide kolektiboaren berezitasun nagusi gisa.
  - Erantzukizuna, integritatea eta adimena, baliabide publikoak administratzeko orduan.
  - Udalerriko giza kapitalean eta Udaleko profesionalen zein herritarren gaitasunetan oinarritutako gobernabilitatea.
  - Hiriko kohesio eta bizikidetzeta, garapenerako eta aurrerapenerako funtsezko faktore gisa.
- Horregatik, Udal honek arau juridiko, etiko eta moralen betetze handienarekiko duen konpromisoa adierazi nahi du, eta integritate, objektibotasun eta zintzotasun printzipio zorrotzenekiko atxikipena ere. Horrela, Udalarekin harremanetan aritzen diren eragile guztiek mota guztietako iruzur eta ustelkeriaren erabat kontrako jarduera ikusiko dute haren jardunean.

Zuzendaritza taldeko kide guztiek onartu eta partekatzen dute konpromiso hori.

Halaber, enplegatu publikoek ere konpromisoa hartzen dute, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 52. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoarekin bat, ezarritako jokabide kodearekiko, esleitu zaizkien lanak modu arduratsuan eginda eta interes orokorrak babestuta, Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa errespetatuz, eta printzipio hauen arabera: objektibotasuna, integritatea, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoarekiko dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kultura eta ingurumenaren sustapena, emakume eta gizonen berdintasunarekiko errespetua eta baita aipatu Kodea inspiratu duten printzipioak ere, jarraian erreproduzitu direnak.

Toki erakunde honek sustatzen duen kulturaren ez dira onartzen iruzurrezko jarduerak, eta jarduera horien prebentzioa eta detekzioa errazten dira, horrelako kasuen kudeaketarako prozedura eraginkorrak garatuz. Horrela, besteak beste, Udalak egintza honetan bertan onetsiko ditu bere Iruzuraren Aurkako Plana eta barne dituen prozedura eta neurriak, interes gatazka posibleak edo iruzur egoera potentzialak saihesteko eta, egokia denean, zuzentzeko.

Kontrol eta jarraipen eginkizunak Iruzuraren Aurkako Batzordeari egokituko zaizkio, korporazioko kide, enplegatu publiko eta Udaleko langile guztien lankidetzarekin. Era berean, prozesu arduradun eta kudeatzaileen laguntza ere jasoko du batzordeak, horietako bakoitzaren erantzukizun eremu barruan barne kontrolerako sistema egokia abian dela ziurtatzeko eta, egokia denean, neurri zuzentzaileak ezartzean behar adinako ardura jartzen dela bermatzeko.

Azken batean, tokiko Udalak iruzur eta ustelkeriarekiko tolerantziarik eza dakarren politika bat ezarri du, eta kontrol sistema sendo bat ere, iruzur egintzak ahal den neurrian prebenitu eta antzemateko, eta horien inpaktua zuzentzeko, halakorik gertatzekotan.



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

**4. Eginkizun eta erantzukizunen banaketa bereizia kudeaketa, kontrol eta ordainketa jarduketetan,** bereizketa hori argi eta garbi utzita. Horretarako, zuzeneko arduraren bakoitza jasota utziko da arriskuen ebaluazio mapan.

**5. Kudeatzen diren neurri guztien arrisku ebaluaziorako mekanismo egokiak,** mekanismo horiek jasota utzita, iruzurra pairatzeko aukera gehien dituzten prozesuaren zatiak identifikatzeko eta bereziki kontrolatzeko helburuarekin, honako hau oinarri hartuta: **Arrisku mapa bat egitea (I. eranskina), hauek identifikatzeko:**

- Iruzurra izateko aukera gehien duten neurriak, esaterako, intentsitate handikoak, aurrekontu handikoak, eskatzaileek justifikatu beharreko eskakizun ugari dituztenak, kontrolatzeko konplexuak direnak, etab.
- Interes gatazka posibleak.
- Barne auditoretzako aurreko lanen emaitzak.
- Europako Batzordearen edo Europako Kontuen Auzitegiaren auditoretzen emaitzak, egokia denean.
- Aurretiaz antzemandako iruzur kasuak.

**6. Barne kontrolerako sistema eraginkorra,** behar bezala diseinatu eta kudeatzen dena, identifikatutako arriskuak eraginkortasunez murrizteko kontrolak dituen eta zuzeneko arduradunak izendatzen dituena.

-

**7. Datuen analisia.** Datuak babesteari buruzko mugen barruan, datuak gurutzatuko dira beste erakunde publiko edo sektoreko erakunde pribatuekin, arrisku handiko egoera posibleak antzemateko.

## **B) DETEKZIOA.**

Prebentzio neurriak ez dira nahikoa iruzurraren aurkako babes oso bat bermatzeko; beraz, zenbait sistema hautatu behar dira prebentzioari ihes egin diezaioketen iruzurrezko jokabideak garaiz antzemateko.

**Iruzurra antzemateko tresnek barne izango dituzte:**

- 1) Datu baseen erabilera, hala nola Dirulaguntzen Datu Base Nazionala (BNDS, gaztelaniaz), datuen prospekzioa ("data mining") egiteko tresnak, zehazki, MINERVA, edo arriskuak zenbatetzeko tresnak (ARACHNE).
- 2) Iruzuraren adierazleak (bandera gorriak) garatzea eta horiek antzemateko tokian dauden langileei komunikatzea.
- 3) Iruzurra antzematen dutenek beren susmo posibleen berri emateko mekanismo egoki eta argiak ezartzea.

## **C) ZUZENKETA.**

Iruzur posiblea edo horren susmo oinarriduna antzemateko, **Iruzuraren Aurkako Batzordeak** jarduketa hauek gauzatu beharko ditu:

- Prozedura berehala bertan behera uztea;**
- Egoera ahalik eta lasterren agintaritza interesdunei eta jarduketan gauzatzean parte hartzen duten erakundeei **jakinaraztea;**





Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

- Iruzurreekiko esposizioa izateko aukera duten proiektu guztiak **aztertzea**;
- Iruzuraren intzidentzia ebaluatzea eta sistemikoa edo puntuala izan den zehaztea; eta
- BEMek finantzatu dituen edo finantzatuko dituen eta iruzurra sufritu duten proiektuak edo proiektuen zatiak baztertzea.

#### **D) PERTSEGITZEA.**

**Iruzuraren Aurkako Batzordeak** lehenbailehen gauzatuko ditu jarduketak hauek:

1. Gertakariak eta hartutako neurriak erakunde erabakitzaileari jakinaraztea (edo jarduketak gauzatzeko enkargua eman dion erakunde betearazleari, hark erakunde erabakitzaileari jakinarazteko). Erakunde erabakitzaileak gaiaren berri emango dio Agintaritza Arduradunari, auziaren jarraipena egin eta Kontrol Agintaritzari komunikazioa egiteko beharrezkotzat jotzen duen informazio gehigarria eskatzeko aukera izan dezan.
2. Egokia denean, zigortzeko moduko gertakariak agintaritza publiko eskudunen aurrean (Iruzuraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionala edo SNCA) salatzea, gertakariak baloratzeko eta Iruzuraren Aurkako Borrokarako Europako Bulegoari jakinarazteko, beharrezkoa bada.
3. Erantzukizunak egozteko informazio erreserbatua abian jartzea edo diziplina espediente bat irekitzea.
4. Gertakariak fiskaltzaren eta auzitegi eskudunen aurrean salatzea, egokia denean.

### **10.- PLANAREN JARRAIPENA ETA ALDIAN BEHINGO KONTROLA**

Usurbilgo Udalak planaren neurrien jarraipena egiteko informazio sistema egoki bat ezartzeko konpromisoa hartzen du, ahalik eta lasterren, eta baita integritatearen aurkako gertakariak, iruzurrak edo ustelkeria prebenitu, antzeman eta kontrolatzeko eginkizunak gauzatzeko konpromisoa ere.

Era berean, barne eta kanpo komunikaziorako kanalak gaituko dira, langileek beren kudeaketan antzematen dituzten arriskuen berri eman dezaten, bai eta jarduera okarren edo arau hausteen berri ere.

#### **1.- GAINBEGIRATZEA**

Aldian behingo kontrolak egingo dira planaren arauak bete direla egiaztatzeko eta izandako efektu praktikoak ezagutzeko.

Planaren urteko jarraipena egiteko, departamentu eta zerbitzu kudeatzaile bakoitzaren analisia egingo da, helburu horretarako prestatutako galdetegi eta ekintza espezifikoen bidez.

Jarraipen prozesuak bermatuko du erakundearen jardueretarako egokiak diren kontrol mekanismoak aplikatu direla eta prozedurak maila guztietan errespetatzen direla. Gorago aipatutako aldian behingo berrikusketa eta eguneraketek gain, unitate bakoitzeko arduradunak zuzendaritza organo gorenarekin harremanetan jarriko dira prebenitu beharreko arrisku handiak edo berriak agertzen direnean.

Azkenik, planean aurreikusitako neurrien betetzeari buruzko txosten bat egingo da. Txosten hori zuzendaritza organo gorenari helaraziko zaio.

#### **2.- PLANAREN BERRIKUSKETA ETA EGUNERAKETA**



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

Planaren gauzatzeari buruzko urteko txostenak hala adierazten duenean eta ez betetze edo iruzur zein ustelkeria kasuak gertatzen direnean, plana eguneratu beharko da, betiere egindako jarraipenaren arabera. Era berean, beharrezkoa den guztietan ere berrikusiko da, aurreko apartatuan aurreikusitako ebaluazioak kontuan hartuta.

Planaren neurrien betetzea ebaluatuko da eta, egokia bada, kontrol organoa berrikusi eta errealitatera egokitzea proposatuko da, gardentasuna bermatu eta arriskuak ahalik eta gehien murrizteko helburuekin.

### 3.- KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA

Informazioa kudeatzeko prozesuak garatu eta ezarriko dira, eta komunikazio plan bat prestatuko da, langile guztien parte hartzea eta inplikazioa sustatzen duena.

Halaber, postontzi bat gaituko da erakundeko langile guztiek, integritate instituzionalaren inguruko informazio esanguratsuekin batera, arriskuen kudeaketari buruzko bestelako gaiak jakinarazteko aukera izan dezaten, egokitzat jotzen dituzten hobetzeko proposamenak egiteaz gain. Planaren organo gainbegiraleak aztertutako aurkeztutako proposamenak.

Hona hemen informazio eta komunikazioaren eremuan hartuko diren neurriak:

- Prozesuetako prebentzio arduradunaren aldetiko barne autoebaluazioak;
- Arrisku mapen aldi behingo berrikuspenak;
- Ezarritako neurrien jarraipenerako urteko txostena egitea;
- Finantza kontrolak/auditoretzak planetan identifikatu diren arrisku prozesuetarantz bideratzea;
- Kontrol organo propio eta independenteen ebaluazioak kanpo kontrolaren esku uztea;
- Zerbitzari publikoen autoebaluazioen emaitzen berri emateko prozedura bat ezartzea;
- Antzeman diren ustelkeria edo iruzur egoerei erantzuteko neurriak zehazten dituen prozedura/protokolo bat ezartzea.



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

## I. ERANSKINA. ARRISKU MAPA

Arrisku mapa egitea da proposatzen diren prebentzio neurrietako bat. Neurri hor adierazle edo bandera gorriekin lotutako detekzio neurriekin osatuko da.

Arrisku espezifikoak, arriskuen inpaktua eta –Udalak dituen kontrolak kontuan hartuta– arriskuak gertatzeko probabilitatea identifikatuko dituen autoebaluazio bat izango da abiapuntua. Udalaren kontrolak arrisku maila onargarri baterako nahikoa ez balira, kontrol edo neurri gehigarriak proposatuko dira. Aldian behin berrikusiko da.

Jarduera guztietan, erreferentzia hauek hartu beharko dira kontuan:

<b>Jarraipenaren organo arduraduna:</b>	
<b>Kontrolaren ardura zuzena duen pertsona:</b>	
<b>Uneko kontrolak:</b>	
<b>Kontrola dokumentatu egiten da?</b>	
<b>Zein da kontrolak eskaintzen duen konfiantza maila?</b>	
<b>Aurreikusitako hurrengo kontrola:</b>	

### 1.- KONTRATAZIO EREMUAN

<b>Arriskua</b>	<b>Inpaktua/ larritasuna</b>	<b>Probabilitatea</b>
1.- Interes gatazken arriskua		
2.- Lehia mugatzearen arriskua		
3.- Lizitzaile jakinei laguntzeko arriskua		
4.- Eskaintzak baloratzean objektibotasun ezaren arriskua		
5.- Alderdi ekonomikoak bakarrik aintzat hartzearen arriskua		
6.- Kontratuan xedatutako baldintzak betetzen ez dituzten prestazioak jaso		



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

eta/edo ordaintzearen arriskua		
7.- Faltsutasun dokumentala egiteko arriskua		
8.- Kontratuak betetzen ez direnean erantzukizunik ez eskatzearen arriskua		
Beste batzuk...		

## 2.- DIRULAGUNTZEN EREMUAN

Arriskua	Inpaktua	Larritasuna
Lehia mugatzeko arriskua		
Onuradunak hautatzean tratu diskriminatzailea ematearen arriskua		
Interes gatazken arriskua		
Funtsak ezarritakoak ez diren beste xede batzuetarako erabiltzeko arriskua		
Finantzaketa bikoitzaren arriskua		
Faltsutasun dokumentalaren arriskua		
Komunikazio eta informazio obligazioak ez betetzearen arriskua		
Ikuskatze, jarraipen eta kontrol eskakizunak ez betetzearen arriskua		

## 3.- HITZARMENEN EREMUAN

Arriskua	Inpaktua/ larritasuna	Probabilitatea
Hitzarmenak sinatzean kontratazio prozedura saihestearen arriskua		
Onuradunak hautatzean tratu diskriminatzailea ematearen arriskua		
Interes gatazken arriskua		



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

Funtsak ezarritakoak ez diren beste xede batzuetarako erabiltzeko arriskua		
Finantzaketa bikoitzaren arriskua		
Faltsutasun dokumentalaren arriskua		
Komunikazio eta informazio obligazioak ez betetzearen arriskua		
Ikuskatze, jarraipen eta kontrol eskakizunak ez betetzearen arriskua		

#### 4.- KUDEAKETA EKONOMIKO ETA ONDARE KUDEAKETAREN EREMUAN

Arriskua	Inpaktua/ larritasuna	Probabilitatea
Kontabilitate, diru bilketa eta kontrol eginkizunen ikuskaritza behar bezala ez aplikatzearen arriskua		
Plan ekonomiko-finantzarioak ez betetzearen arriskua		
Kanpokoei eskatzen zaizkien datuen egiazkotasuna ez kontrolatzearen arriskua		
Proiektuen sailtako arduradunek egindako txosten tekniko edo juridikoei jaramonik ez egitearen arriskua		
Behar bezala justifikatu ez diren eragozpen etengarriak egitearen arriskua		
Kontratazioa eta funtsen betearazpena behar bezala justifikatu gabe etetearen arriskua		
Komunikazio eta informazio obligazioak ez betetzearen arriskua		
Kontratuen izapidetzea eta ondorengo ikuskaritza eta kontrola errazten dituzten prozesuen eskuliburuak		



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

kontratazioaren arduradunen eskura ez jartzearen arriskua		
Kutxa finkoko aurrerakinak edo justifikatu beharreko ordainketak gehiegi erabiltzearen arriskua		
Europako funtsekin finantzatu diren proiektuen kontabilitate bereizia ez eramatearen arriskua		
Funtsak izapidetzeko eskakizunak ez betetzearen arriskua, esaterako, BEZa ordaintzeko dagokion aurrekontua atxikitzea.		
Hornitzaileei ordaintzeko epea ez errespetatzearen arriskua		
Udalaren ordainketen hurrenkera ez errespetatzearen arriskua		



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

## II. ERANSKINA. BANDERA GORRIEN CHECKLIST ZERRENDA

Bandera gorri bat izateak ez du halaberharrez esan nahi iruzurra dagoenik, baina jarduera esparru jakin batek arreta berezia behar duela adierazten du, iruzur potentziala baztertu edo berretsi ahal izateko.

Hona hemen iruzurrezko jardun potentzialak, motaren arabera sailkatuta:

### Orokorrean:

- Plangintzan, sistematizaziorik eza.
- Prozedura eskulibururik ez izatea.
- Eskumenen banaketa argirik ez izatea.
- Txostenen bertsioen trazabilitaterik eza.

### Lizitzaile bat hautatzeko prozedura arautzen duten agirietan:

- Lizitaziora eskaintza bakarra edo proposamen kopuru txikiegia aurkeztea.
- Prozedura arautzen duten agirien eta kontratista irabazlearen produktu edo zerbitzuen arteko ezohiko antzekotasuna; beste lizitzaile batzuen kexak jasotzea.
- Aurreko antzeko prozeduretan baliatu zirenak baino mugatzaileagoak edo orokorragoak diren preskripzioak dituzten agiriak.
- Klausula ezohikoak edo arrazoizkoak ez diren klausulak dituzten agiriak.
- Botere adjudikatzailerak marka jakin baten produktua definitzea, produktu generiko bat definitu beharrean.
- Lehia mugatzen duen edozein klausula jartzea, inolako justifikaziorik gabe (indartua).

### Kolusiozko lizitazioetan:

- Eskaintza irabazlea altuegia da, aurreikusitako kostuekin, prezio zerrenda publikoekin, antzeko obra edo zerbitzuekin, industriako batezbestekoekin edo merkatuko erreferentziako prezioekin alderatuz gero.
- Lizitzaile guztiek prezio altuak eskaintzen dituzte etengabe.
- Eskaintzen prezioak bat-batean jaisten dira lizitzaile berriek prozeduran parte hartzen dutenean.
- Adjudikaziodunak eskualdearen, lan motaren edo obra motaren arabera banatzen/txandakatzen dira.
- Adjudikaziodunak lizitzaile galtzaileekin azpikontratatzan du.
- Ezohiko eskaintza patriiak (esaterako, eskaintzek beherapen portzentaje berberak dituzte, eskaintza irabazlea justu prezio onargarrien atalase azpian dago, eskaintza bat dator zehazki kontratuaren aurrekontuarekin, eskaintzen prezioak altuegiak, hurbilegiak, desberdinegiak, borobilegiak, osatugabeak, etab. dira).

### Interes gatazka:

- Kontratista edo saltzaile jakin batetik fabroritismo ulergaitza edo ezohikoa.
- Prezio altuak, kalitate gutxiko lanak, etab. etengabe onartzea.



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

- Kontratazioaz arduratzen den langileak ez du interes gatazkaren adierazpenik egin edo adierazpen osatugabea egin du.
- Kontratazioaz arduratzen den langileak erosketekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari uko egiten dio.
- Kontratazioaz arduratzen den langileak bere aldetik negozio propioak egiten dituela dirudi.
- Sozialazioa kontratazioaz arduratzen den langile baten eta zerbitzu edo produktuen hornitzaile jakin baten artean.
- Kontratazioaz arduratzen den langilearen aberastasuna edo bizi maila bat-batean edo modu ulergaitzean areagotzea.

### **Aurkeztutako eskaintzen manipulazioa:**

- Lizitatuzaileek kexak aurkeztea.
- Kontrolik eza eta lizitazio prozedura okerrak.
- Eskaintzak jaso ondoren aldatu izanaren zantzuak.
- Akatsen ondorioz baztertutako eskaintzak.
- Lizitatuzaile gaitua, zalantzarik arrazoiengatik baztertua.
- Prozedura ez da esleitu gabetat jotzen eta deialdia berriz ere egiten da, eskatzen den gutxieneko kopurua baino eskaintza gutxiago jaso ziren arren.

### **Gastuaren zatikatzea:**

- Antzeko objektua duten bi erosketa edo gehiago antzematen dira, adjudikaziodun berari, zuzeneko adjudikazio prozedurak erabiltzeko muga onargarrien azpitik, publizitate atalaseen azpitik edo lehia berme handiagoak dakartzaten prozedurak eskatzeko atalaseen azpitik.
- Erosketak justifikaziorik gabe banantzea, esaterako, kontratu bereziak egitea eskulan eta materialetarako, biak ere lizitazio irekirako atalaseen azpitik egonda.
- Erosketa sekuentzialak, justu lizitazioen publizitatea behartzen duten atalaseen azpitik.

Europar Batasuneko 2018ko Finantza Erregelamenduak finantza kudeaketa egokiaren printzipioa babesteko zenbait aurreikuspen ezartzen ditu, agintaritzak nazionalak (estatukoak, erkidegokoak zein tokikoak) Europar Batasuneko aurrekontutik datozen finantza baliabideak modu partekatuan kudeatzen dituzten eremu guztietan. Era berean, kudeaketa prozesuetan ager daitezkeen interes gatazken kontzeptua eta aplikazioa zabaltzen ditu.

Bere aldetik, 2021/241 (EB) Erregelamenduak, otsailaren 12koak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak, behin eta berriro adierazten du, berreskuratze tresna horri lotutako Europako funtsen kudeaketari dagokionez, Europar Batasuneko estatuak Europar Batasunaren interes finantzarioak zaindu eta babestu beharko dituztela, batez ere iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitu, antzeman eta zuzentzeko neurriak hartuta. Bereziki garrantzitsua da Erregelamendu horren 22. artikulua dakarren arautzea; izan ere, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitu, antzeman, zuzendu eta pertsegitzeko behar adina neurri hartzeko betebeharra ezartzen die Berreskuratze eta Erresilientzia Planaren esparruan Europako funtsak kudeatzen dituzten Europar Batasuneko estatuak eta, ondorioz, horien baitako erakundeei.

Halaber, 36/2020 Errege Lege Dekretuak, abenduaren 30ekoak, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko





Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

neurriak onartzen dituenak, 3. artikuluan arautzen ditu kudeaketa onaren printzipioak, administrazio publiko guztiei aplikatzeko oinarritzko arau moduan. Printzipio horien artean aipatzen du interes gatazkak, iruzurra eta irregulartasunak modu eraginkorrean prebenitzearena. Era berean, 21.3 artikuluan, organikoki IGAeren mendekoa den Iruzuraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalaren esku uzten du, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko kontrol agintaritzaren heinean, “Europar Batasunaren finantza interesak iruzurretik, ustelkeriatik edo legez kanpoko beste edozein jardueretatik babesteko eginkizunak betez”, iruzurra prebenitzeko, detektatzeko eta ikertzeko beharrezkoak diren lanen sustapena, horretarako kudeaketa organoekin harremanetan egonez.

Espaniako Gobernuak aurkeztu zuen eta bere garaian Europako erakundeek onespina jaso zuen Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak ere zenbait pasarte eskaintzen dizkie iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak antzeman, zuzendu eta, egokia bada, pertsegitzeko hartu beharreko neurriak, jardun irregular horiek ager daitezkeen prebenitzeko eta Berreskuratze Planari lotutako Europako funtsen kudeaketan gerta daitezkeen saihesteko edo arintzeko.

36/2020 Errege Lege Dekretuan jasotako aurreikuspenen araudia garatuz, HFP/1030/2021 Aginduak, irailaren 29koak, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa sistema eratzeko duenak, definitu egiten ditu Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa printzipio espezifikoak, zeharkako izaera emanez. Printzipio horien artean, honako hau aipatzen da berariaz: “Iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, antzemateko eta zuzentzeko mekanismoen indartzea”.

Araudiaren aldetik, daturik garrantzitsuena da printzipio horiek erabat txertatuta daudela Europar Batasuneko baliabideekin finantzatzen diren proiektuak, azpiproiektuak edo jarduketak gauzaten dituen edozein erakunde publiko zein pribatuk abian jarri beharreko Europako funtsen kudeaketa sisteman, hartara tresna horien diseinu eta kudeaketarako irizpide homogeenak bermatuz. Era berean, aipatu Aginduak 6. artikuluan xedatzen du iruzurraren aurkako neurrien plan bat izateko betebeharra, planaren helburua izanda “dagokion jarduketa eremu barruan, kasuko funtsak arau aplikagarrien arabera erabili direla ziurtatu eta deklaratzeko, batez ere iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeari dagokionez”. Orobat Aginduaren II B 5 Eranskinean aurreikusi da erakunde bakoitzak autoebaluazio galdetegi bat egiteko beharra (bertan galdera edo elementu hau berariaz txertatuz: erakundeak kode etiko edo jokabide koderik ba al du?). Bestalde, Aginduaren III C Eranskinak xedatzen du kultura etiko baten garapenerako prebentzio neurrien artean txertatu behar dela “iruzurrari aurre egiteko jokabide kode bat ezartzea, horren barne direla interes gatazkak, opariak, konfidentzialtasuna, salaketa kanalak (salaketa postontzia eta/edo SNCaren salaketa kanalerako esteka) eta antzeko beste alderdi batzuk”.

Integritate mekanismoak indartzeko eskakizuna aurki daiteke ere proiektu eta azpiproiektuak gauzatzeko jarraipen eta kontrol prozesuko elementu moduan, prozesuko fase guztietan eta, bereziki, kudeaketa txostenean (10. artikulua) eta betetze adierazpenean (12. artikulua). Adierazpen horretan, berariaz ziurtatu behar da, alde batetik, funtsak aurreikusitako xedeetarako erabili direla, baina, batez ere, gauzatze hori “interes gatazkak, iruzurra, ustelkeria eta (Berreskuratze eta Erresilientzia) Mekanismitik zein Europar Batasuneko beste programa batzuetatik datozen finantzaketa bakoitzak prebenitzeko arauak” zorrozki aplikatuz egin dela, “kudeaketa finantzario onaren printzipioari jarraituz”.

Nolanahi ere, HFP 1030/2021 Aginduan jasotako aurreikuspenek –arlotan honi dagokionez eta nahitaezkoak diren aurreikuspenak alde batera utzita (6. artikulua, 4. eta 5. apartatuak, bertan jasotako salbuespenekin)– xedapen eduki zabala dute (batez ere prebentzio eta detekzio faseetarako) erakunde bakoitzaren ezaugarri espezifikoetara egokitu ahal izateko.



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

II.-

Laburki azaldu den araudi esparruan adierazitakoarekin bat, eta erakunde honek onetsi duen Integritate eta Iruzurraren Aurkako Neurrien Planean xedatutakoaren barne, Integritate Protokolo hau txertatu da Europako funtsen kudeaketan. Protokoloa zubi moduko tresna osagarria gisa erabiliko da, Planak aipatzen duen kode etikoa eta jokabide kodea edo erakundeko bestelako jokabide kodeak onartu arte, erakundeko integritate kultura indartzeko eta baita Europako funtsen kudeaketa etikoa eta kudeaketa finantzario ona indartzeko helburuarekin protokoloan ezarri diren balio eta printzipioen interpretazio eta irismenari dagokienez planteatzen diren arazo, galdera etiko, kexa edo salaketei erantzun puntuala emateko ere.

Edozein kasutan ere, tresna horrek zenbait ezaugarri bereizgarri ditu. Hona hemen:

- a) Zubi tresna da; beraz, une honetan aplikagarria den kudeaketaren berrikusketa bidez edo etika eta jokabide kode berri baten (edo zenbaiten) bidez osatu behar da. Kode berri horrek protokolo honetan xedatutakoaren arabera Europako funtsen kudeaketa txertatuko du eranskin moduan.
- b) Ondorioz, tresna osatugabea da, balioak eta printzipioak bakarrik ezartzen baititu. Hala ere, balio eta printzipio horien definizioa oinarri hartuta, erakundeak Europako funtsak betearazteko lehenengo urratsetan ager litezkeen dilema etiko eta arazoak ebatzi daitezke.
- c) Dena den, erabakitze eta zuzendaritza eginkizunak edo eginkizun profesionalak gauzatzean inpartzialtasuna eta objektibotasuna modu eraginkorrean bermatzeko, eta modu horretan interes gatazken agerpena saihestu edo arintzeko, protokolo honek zenbait jokabide arau ezartzen ditu, printzipio horien erabateko eraginkortasuna arriskuan jar dezaketen operari, erregalia edo arretak jasotzeko mugekin lotura estuak dituztenak.
- d) Laburbilduz, aipatutako salbuespena alde batera utzita, protokolo honek ez du jokabide edo jarduketara araurik berariaz ezartzen, baina arau horietako asko ondorioztatu daitezke protokolo bakoaren balio eta printzipioen definizio mugatutik. Horrek berme organoaren interpretazio eta aplikazio lana erraztu dezake, Europar Batasuneko funtsak kudeatzean Europar Batasunaren finantza interesen babesaren erabateko eraginkortasuna ziurtatzeko.
- e) Nolanahi ere, autoerregulazio tresna espezifiko bat da, erakundeak Europako funtsak kudea ditzan, eta hori garrantzitsua da kode orokorretatik desberdintzen duelako. Agerikoa denez, kode orokor horiek ezin dituzte kontuan hartu eremu honetan elkartzen diren funts eta printzipio espezifikoaren ezaugarri zehatzak.

Integritate Protokolo honek egitura sinplea du:

Lehenik, Integritate Protokoloaren objektua, izaera eta xedeak azaltzen dira, Europako funtsen kudeaketaren esparruan. Protokoloaren berezitasuna da Berreskuratze Planetik eratorritako jarduketak kudeatzean halaberrez kontuan hartu behar diren balio etiko eta kudeaketa onerako printzipioak definitzen dituela.

Aplikazio eremu objektiboak barne hartzen ditu Europako funtsen betearazpenean parte hartzen duten arduradun edo kudeatzaile guztiak, betiere kontuan hartuta eremu hori, etorkizunean, Europako funtsak jaso dituzten bestelako erakunde, enpresa, elkarte, eragile edo profesionalak (kontratistak, emakidadunak, diruz lagundutako erakunde edo pertsonak, etab.) barne hartzeko zabaldu daitekeela.

Protokoloaren izaera, argi eta garbi, autoerregulazio tresna batena da, eta xede prebentiboa du,



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

erakundearen azpiegitura etikoa indartu nahi baitu, batez ere Europako funtsen kudeaketarekin lotutako alderdi guztietan. Horrez gain, kudeaketa integritatearen aldetik zehaztu nahi du, erakunde solidoak eraikitzearen aldeko 2030 Agendaren 16. Garapen Jasangarrirako Helburuan xedatutakoarekin bat. Bigarrenik, Europako funtsak kudeatzean erakundearen eta bere arduradun eta enplegatu publikoen jarduna gidatu beharko duten balio etikoak ezartzen dira. Abiapuntua balioen kontzeptua, xedea eta helburuak dira. Ondoren, funtsen betearazpena gidatuko duten sei balio nagusiak definitzen dira:

- Integritatea
- Eredugarritasuna
- Zintzotasuna eta interesik eza
- Inpartzialtasuna eta objektibotasuna
- Bikaintasun profesionala
- Errespetua eta enpatia

Balio horiek zenbait enuntziaturen bidez mugatzen dira, balioen irismena zehazteko. Horrek orientazio moduan balio balioko die hartzaileei, eta interpretazio zein aplikaziorako gidalerroak eskainiko dizkio Integritate Batzordeari, ager litezkeen auzi etiko, dilema, zalantza edo kexei aurre egiteko.

Hirugarrenik, Europako funtsen kudeaketa gidatuko duten kudeaketa onaren printzipioak definitzen dira. Hasieran, printzipioen definizio eta mugaketa kontzeptuala egiten da, printzipioak zer diren, zertarako balio duten eta Europako funtsak gauzatzeko prozesuan zein xede dituzten azalduz. Ondoren, sei printzipio aipatzen dira:

- Kudeaketa emaitzekiko konpromisoa.
- Kudeaketa finantzario ona eta kudeaketa efizientea.
- Gardentasuna.
- Datu pertsonalen babesa.
- 2030 Agendarekin eta garapen jasangarriarekin lerrokatutako Europako funtsen kudeaketa.
- Zuzendaritza erantzukizuna eta erantzukizun profesionala Europako funtsen kudeaketan.

Balioekin egin den modu berean, printzipio horien zentzua eta irismena mugatu egiten dira, Europako funtsak betearazteaz arduratzen diren arduradun eta kudeatzaileei gidalerroak emateko, baina, aldi berean, Integritate Batzordeak, Europako funtsen eguneroko kudeaketan eta horrekin lotutako arazoan aurrean, printzipioak interpretatu eta aplikatzeko elementuak izan ditzan.

Laugarrenik, protokoloak zenbait irizpide ezartzen ditu, erakundeek kultura etikoa indartzeko helburua duten politikak eta prestakuntza ekintzak garatzearen garrantziari buruzkoak, batez ere Europako funtsen kudeaketari dagokionez, Integritate eta Iruzuraren Aurkako Neurrien Planean xedatutakoarekin bat etorritik.

Integritate Protokoloaren bosgarren blokea bereziki garrantzitsua da; izan ere, integritate instituzionalerako edozein esparruren oinarritzko elementuetako bat aurreikusten du, bere garaian ELGAK definitutako moduan: tresna honen aplikazioaren inguruan planteatzen diren auzi etiko, dilema, zalantza, kexa edo beste edozein kontsulta edo gorabehera ebazteko mekanismo eta prozedurak.

Alabaina, aldi berean, jokoan diren Europar Batasunaren interes finantzarioen garrantzia dela eta, salaketetarako barne kanal bat abian jartzen du, 2019/1937 (EB) Zuzentarauak, salatzailea



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

babesteari buruzkoak, ezarritako betebeharrei irtenbide iragankor bat emateko, eremu horretan behintzat. Zuzentarauak 2021eko abenduaren 17a zuen transposizioa egin eta barne Zuzenbidean indarrean sartzeko mugako data gisa. Neurri horiekin, kudeaketa finantzario onaren printzipioa bermatu eta Europar Batasunaren finantza interesak babesteko ezinbestekoa den barne kanal horren sorrera bere gain hartuko du erakundeak.

Seigarren atala ere oso garrantzitsua da, protokoloaren berme organo moduan jardungo duen Integritate Batzordearen ingurukoa baita. Batzorde horrek eginkizun zabalak izango ditu, Europako funtsen eguneroko kudeaketan balio eta printzipioak erabat errespetatzen direla bermatze aldera. Era berean, antolakuntza edo erakunde efizientziako ageriko arazoak direla eta, Integritate Batzorde hori arduratuko da ere salaketen barne kanala izateaz eta helburu horretarako sortzen den postontzia kudeatzeaz.

## **I.- EUROPAKO FUNTSEN KUDEAKETARAKO INTEGRITATE PROTOKOLOAREN OBJEKTUA, IZAERA ETA XEDEA**

### **1.- Objektua**

Protokolo honetan ezarri dira Europako funtsen kudeaketa prozesuetan parte hartzen duten arduradun, kudeatzaile edo langileek jarraitu beharreko balio etiko eta kudeaketa onaren printzipioak, prozedura horietan kudeaketa finantzario onaren printzipioa bermatu eta Europar Batasunaren finantza interesak babesteko.

### **2.- Protokoloaren aplikazio eremua**

2.1.- Kode hau aplikatuko zaie beren eginkizunak, partzialki edo erabat, erakundeari esleitutako Europako funtsen kudeaketa prozeduretan gauzatzen dituzten arduradun, funtzionario eta enplegatu publikoei.

2.2.- Halaber, protokolo hau aplikagarria izango zaie, jokabide arauari dagokienez eta inpartzialtasuna eta objektibotasuna babesteko helburuarekin, Europako funtsen kudeaketaren esparruan garatzen diren kontratazio publikoko eta dirulaguntzetako prozesuetako lizitatzailerik, kontratista, azpikontratista, deialdietako parte hartzaile eta kanpoko adituei.

### **3.- Protokoloaren izaera**

3.1.- Protokolo hau prebentzio izaera duen autoerregulazio tresna moduan onetsi da, Europako funtsen kudeaketan integritate mekanismoak indartzeko.

3.2.- Protokolo hau iragankorra izango da, erakundeak balio eta printzipioak txertatu eta garatzen dituzten jokabide kodeak onetsi arte, jokabide arau eta jarduteko arauen bitartez, edo erakundeak aplikagarria den kodea egokitu arte, protokolo hau eranskin moduan txertatuz. Helburu hori bete bitartean, kode honetan jasotako balio eta printzipioak aplikagarriak izango dira, berme organoak adierazitako baldintzetan eta betiere kasu bakoitzean aplikatu beharreko legezko xedapenak eta araudiak kaltetu gabe.

3.3.- Erakundearen azpiegitura etikoak duen hobekuntzarako izaera proaktibo eta prebentiboa kontuan hartuta, protokolo honek izaera axiologikoa du, erabakitzaileen balio publikoak eta jarduera profesionalen deontologia indartzeko helburu argiarekin, aldi berean kudeaketa finantzario onaren printzipioa eta Europar Batasunaren finantza interesak babestuz, Europako funtsen kudeaketan.

3.4.- Protokoloa Europako funtsak kudeatzeko sistemaren barne dago, integritate mekanismoak indartzeko zeharkako elementu moduan.

3.5.- Protokolo hau egituratzen duten balio eta printzipioek gidatuko dute erakunde honetako Europako funtsen arduradun eta kudeatzaileen jarduna. Halaber, beren jokabide eta jarduketak balio eta printzipio horiekiko egokitasunaren arabera aztertu ahalko ditu berme organoak, kasu bakoitzean egokiak diren zuzenketa neurriak proposatzeaz gain.



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

#### **4.- Xedea**

4.1.- Protokolo honen xedea Europako funtsen kudeaketan integritate mekanismoak indartzea da, eta baita azpiegitura etiko baten garapena sustatzea ere, erakunderako eta arduradun zein kudeatzaileen eginkizunak gauzatzeko.

4.2.- Beren eginkizunak gauzatzean, arduradun eta kudeatzaileek emaitzekiko konpromisoaren printzipioa errespetatuko dute Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren egikaritze ekintza guztietan. Era berean, ingurumenaren babes eta hobekuntza eta 2030 Agendako Garapen Jasangarriko Helburuak ere sustatuko dituzte.

4.3.- Protokolo honen onespenerekin honako hauek lortu nahi dira, Europako funtsen kudeaketari dagokionez:

- a) Erakundearen azpiegitura etiko bat garatzea, bere zerbitzura dauden langileen eredugarritasuna, objektibotasuna eta bikaintasuna nabarmendu eta areagotzeko, eginkizun eta lanen gauzatzean, kudeaketa finantzario onaren printzipioaren bidez.
- b) Arduradun eta kudeatzaileen orientazio profesionalerako gida izatea, protokolo honetan jasotako balio eta printzipioak barneratu eta beren lanen gauzatzean aplikatuz.
- c) Arduradun eta kudeatzaileen inpartzialtasun, profesionaltasun, integritate eta zerbitzu irudia indartzea.

## **II.- BALIO ETIKOAK EUROPAKO FUNTSEN KUDEAKETAN**

### **A. BALIO ETIKOAK**

#### **5.- Balio etikoak. Kontzeptua.**

5.1.- Protokolo honetan jasotzen diren balioek Europako funtsak betearaztearen arduradun eta kudeatzaileen erabaki eta jardura profesionalak gidatu eta orientatzeko balioko dute, kudeaketa eraginkor eta efizientea egiteko, kudeaketa finantzario onaren printzipioa eta Europar Batasunaren interesen babesa oinarri hartuta, erakunde honek kudeatzen dituen baliabideei dagokienez.

5.2.- Halaber, arduradunek eta erakundearen zerbitzura dauden langileek kode honetan jasotako balioak txertatu beharko dituzte beren erabakiak hartzeko prozesuetan, jardun profesionalen eta Europako funtsen betearazpenaren inguruan abiarazten diren kudeaketa prozedura edo sistema guztietan.

5.3.- Protokolo honetan ezarritako balioek funtsezko helburu hauek izango dituzte:

- a) Printzipio hauek bermatzea: kudeaketa finantzario ona, Europar Batasunaren interesen babesa eta kudeaketa emaitzekiko konpromisoa.
- b) Europako funtsen kudeaketan, bikaintasuna eta objektibotasuna bilatzea, erakundearen estandar etikoak eta emaitzak hobetzeko.
- c) Erantzukizun, lanpostu eta enplegu funtzionalei dagozkien eginkizun eta lanak estandar etiko zorrotzekin gauzatzea, baliabide publikoak xahutu edo kaltetzea saihesteko eta erakundeekiko konfiantza publikoa indartzeko.

#### **6.- Balio etikoen zerrenda eta definizioa.**

Hona hemen Europako funtsen betearazpenean parte hartzen duten arduradun eta kudeatzaileen jardun profesionala gidatu beharko duten balio etikoak:

##### **6.1- Integritatea.**

ELGAK emandako definizioaren arabera, integritatea da erakundeak berak ezarritako balio etiko komunitara atxikitzea. Balio horiek interes publikoa interes pribatuen aurretik babestu, mantendu eta lehenesteko helburuarekin egindako printzipio eta arauen multzo batean islatzen dira. Eremu publikoan eta, zehatzago, Europako funtsen kudeaketan, integritatea funtsezko balioa da kudeaketa finantzario ona bermatzeko eta Europar Batasunaren finantza interesak babesteko. Europako funtsen arduradun eta kudeatzaileen akatsik gabeko jokabide etikoak, kudeaketaren



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

emaitzak babesteaz gain, duintasuna emango dio jardun publikoari eta erakundearen irudi eta izen ona hobetuko ditu, erakundearekiko konfiantza publikoa areagotzeaz gain. Integritateak esan nahi du arduradun eta kudeatzaileek ezingo dutela oparirik, erregaliarik edo ekitaldietarako gonbidapenik jaso, edo beren eginkizunetarako objektibotasuna eta inpartzialtasuna arriskuan jartzen duen beste edozein adierazpen. Integritate Batzordeak zehaztuko du, kasu bakoitzerako edo gidalerroen bidez, zein zenbatekotan eta zein kasutan onartu daitezkeen opariak, erregaliak edo gonbidapenak, horrek Europako funtsen betearazpenerako kudeaketa ona arriskuan jarri gabe, eta betiere erakundearen kode etiko edo jokabide kodeak xedatutakoa kaltetu gabe.

### **6.2.- Eredugarritasuna.**

Kargu publiko, zuzendari eta enplegatu publikoek Europako funtsen kudeaketan duten jardunak eragina du erakundearen irudi eta izen onean. Zehazki, erantzukizun handieneko eginkizunak, zuzendaritza eginkizunak edo buruzagitza eginkizunak dituztenen jarduna jokabidearen eta kudeaketaren lidergo etikoan oinarritu behar da. Ondorioz, langileen jokabide publiko guztiak, batez ere beren erantzukizun edo jarduera profesionalaren garapenean, baina baita esparru publikotik kanpo dituzten jokabide pribatuak ere, eredugarriak izan beharko dira. Eredugarritasunik eza, erakundearen irudia hondatzen badu edo erakundearen izen ona kaltetzen badu, jasota utzi beharko da, protokolo honetan aipatzen den berme organoak proposatzen duenaren arabera.

### **6.3.- Zintzotasuna eta interesik eza.**

Europako funtsen betearazpenaren arduradun eta kudeatzaileek, beren erantzukizunak betetzean, egiazko moduan eta gardentasunez arituko dira, eta beren jarduera eskusiban bideratuko dute interes publikoa erabat erdiestera, kudeaketa finantzario ona ziurtatzera eta emaitzekiko konpromisoa betetzera, aldi berean Europar Batasunaren interes finantzarioak babestuz. Beren eginkizunen eta beste interes publiko zein pribatu batzuen arteko interes gatazka egotekotan edo halakorik egoteko susmoa izatekotan, protokolo honen aplikazio eremu barnean dauden langileek berehala jakinaraziko diote hori beren nagusi hierarkikoari. Nagusi horrek txostena eskatuko dio Integritate Batzordeari, ustezko gatazkaren eta hartu beharreko neurrien inguruko proposamena egin dezan. Batzordearen aburuz interes gatazka erreal edo potentzial baten edo horren susmoaren eraginpean daudenek ez dute parte hartuko, ez zuzenki ez zeharka, kasuko prozeduran edo erabakiak hartzeko prozesuan. Nagusi hierarkikoak Batzordeak egindako proposamenetik aldendu nahi badu, ebazpen arrazoitu bat egin beharko du. Protokolo honen aplikazio eremu barruko langileek Integritate Batzordeari helaraziko dizkiote, ezarritako kanalak baliatuz, ager litezkeen ustezko interes gatazken inguruan dituzten zalantza guztiak.

### **6.4.- Inpartzialtasuna eta objektibotasuna.**

Inpartzialtasuna premisa existentziala da sektore publikoko eginkizun eta lanak behar bezala gauzatzeko, batez ere Europako funtsak kudeatzen direnean eta prozesu hori norgehiagoka prozedura administratiboen bidez bideratzen denean. Nolanahi ere, inpartzialtasuna erabat funtsezkoa da funtzionario eta enplegatu publikoen kudeaketan, eta objektibotasunez betearazi behar dira beti Europako funtsak. Ondorioz, protokolo honen mende dauden langileen jardun profesional guztiak politika, familia edo adiskideen eragin eta orientazioetatik aldendu beharko dira, eta interes profesional, pertsonal zein bestelako interesekiko lehiatik urrun egon beharko dira ere. Inpartzialtasuna eta objektibotasuna bereziki garrantzitsuak izango dira interes gatazkarik badagoen erabakitze orduan, protokolo honetan eta Integritate eta Iruzurraren Aurkako Neurrien Planean xedatutakoaren arabera. Halaber, protokolo honen aplikazio eremu barruko langileen jarduera publikoetan, interes orokorrekin eskatzen duten objektibotasuna erabat errespetatu beharko da, hartara, ondorioz, lehia askearen printzipioak babestuta. Objektibotasun hori bereziki zorrotza izango da protokolo honen mendeko langileek, kasuko araudi aplikagarriaren arabera, inpartzialtasun berezia eskatzen duten prozeduretan parte hartzen dutenean, erakundearen erabaki jakinak hartzeko orduan. Hori gertatzen da, besteak beste, kontratazio publikoko edo dirulaguntzak adjudikatzeko prozeduretan.

### **6.5.- Bikaintasun profesionala.**



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

Europako funtsak kudeatzeko lanak, beren espezializazio eremua eta dakartzaten finantza eta kudeaketa inplikazio garrantzitsuak direla eta, profesionaltasuna eta talentua frogatu duten zuzendari eta enplegatu publikoek egingo dituzte. Halaber, zuzendari eta enplegatu publiko horiek kudeaketa alor horretako ezaguera eta trebetasunak dituztela edo horretarako berariaz prestatu direla egiaztatu beharko dute. Irizpide horiek kontuan hartuko dira hautaketan edo eremu horretako erantzukizunak esleitzean. Era berean, eginkizun eta lan horiek gauzatzean, profesionalizazio eta zintzotasun irizpideak jarraituko dira. Zuzendari edo arduradunen lanpostuak bete edo horrelako langileak hautatzeko, kontuan hartu beharko da erakundeak momentu horretan duen barne talentua.

Ondore horretarako, protokolo honen mende dauden langileek etengabe garatu eta hobetuko dituzte beren gaitasun profesionalak, eta beren ezagutza eta trebetasunak eraldaketa funtzional eta teknologikoaren eskakizunetara egokituko dituzte, erakundeak bere langileen profil profesionala optimizatzeko, zaharkitzea saihesteko eta lanpostu bakoitzari esleitutako eginkizun eta lanen gauzatze egokia ziurtatzeko diseinatzen dituen prestakuntza programen bidez. Halaber, lan profesionala emaitzen ebaluazioaren mende egongo da. Kudeaketa emaitzekiko konpromisoaren printzipioa abiapuntu hartuta, erdietsitako helburuak saritzen dituen ordainsari osagarri bat egongo da, plan estrategikoan xedatutakoaren arabera.

#### **6.6.- Errespetua eta enpatia.**

Protokolo honen mende dauden langileek, Europako funtsen kudeaketan gauzatzen dituzten eginkizun eta lanei dagokienez, errespetuz eta begirunez arituko dira erakundeko gainerako pertsonekin tratatzean, eta baita hornitzaile eta bestelako kolektiboekin harremanetan ari direnean ere. Bizikidetzeta, elkartasuna eta tolerantzia nagusi diren lan giro pertsonal eta profesionala sortuko da, horretarako elkarrekiko errespetua, pluraltasuna eta profesionalen arteko lankidetzeta sustatuz. Pertsona orok merezi duen begirunea, zuzentasuna, errespetua eta duintasuna izango dira protokolo honen mendeko langileen jarduna gidatuko dutenak. Protokolo honen mendeko langileek, era berean, ez dute inola ere mespretxuzko terminorik baliatuko eta ez dute inolako bereizkeriarik egingo (batez ere generoagatikoak, baina baita sinesmen, ideologia, sexu orientazio, arraza edo desgaitasunagatikoak edo beste edozein ere).

### **III.- EUROPAKO FUNTSAK KUDEATZEKO PRINTZPIOAK**

#### **7.- Kudeaketa printzipioak: kontzeptua.**

Europako funtsen eremuko kudeaketa printzipioek gidalerro multzo bat osatzen dute, funts horien betearazpenerako beharrezkoak diren erantzukizun politiko edo zuzendaritza zein kudeaketa erantzukizunetatik eratorritako eginkizunak eta lanak gauzatzean gida eta orientazio moduan erabil daitezten. Printzipio horien xede nagusia izango da erakundeak gauzatzen dituen proiektu eta azpiproiektuen mugari eta helburuetan aurreikusitako emaitza eta xedeak bete edo erdiestea, bai eta, egokia denean, esleitutako eginkizunen kalitate eta efizientzia berritu eta etengabe hobetzeko proposamenak egitea ere, proposamen horiek emaitzekiko konpromisoaren eta kudeaketa finantzario onaren printzipioetan oinarrituz.

#### **8.- Kudeaketa printzipioen zerrenda.**

Hona hemen erakundearen zerbitzura dauden langileen jardun profesionala gidatuko duten kudeaketa printzipioak:

##### **8.1.- Kudeaketa emaitzekiko konpromisoaren printzipioa.**

Europako funtsak Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa sistemaren esparru barruan gauzatu behar dira eta, ondorioz, kudeaketa emaitzekiko konpromisoaren printzipioari jarraituz. Konpromiso horren helburuak funts horiek gauzatzeaz arduratzen diren unitate administratiboetako arduradunek ezarriko dituzte, unitateek ezarritako gidalerro eta xedeen arabera, kasu bakoitzean aurreikusitako mugariak eta helburuak erdiesteko. Zuzendari edo



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

enplegatu publikoen esku dagoen Europako funtsen kudeaketa ebaluatu egingo da, erakundeak ezarritako irizpideen arabera. Nolanahi ere, kudeaketa emaitzak bat etorriko dira kudeaketa finantzario onaren eta Europar Batasuneko finantza interesen babesarekin.

### **8.2.- Kudeaketa finantzario ona eta kudeaketa efizientea.**

Europako funtsen eremuko kudeaketa ekonomikoa kudeaketa finantzario onaren printzipioaren mende egongo da, hots, kudeaketa eraginkor eta efizientea izango da, Europar Batasunaren finantza interesekin bat datorrena eta, edozein kasutan ere, erabat lerrotatuta egongo da ildo beretik definitzen den kudeaketa teknologiko edo digitalarekin, betiere arreta berezia jarrita Administrazioaren baliabideen xahutzea eta erabilera okerra saihesteari, batez ere baliabide teknologiko eta bitarteko materialei dagokienez. Efizientzia helburu hori sustatzeko, plangintza estrategiko eta operatiboak eta berrikuntza eta etengabeko hobekuntza prozesuak abiaraziko dira. Helburu horretarako, erdietsitako proiektu eta helburuak ebaluatuko dira, zuzendari eta enplegatu publikoen aldetiko lana ebaluatzearekin batera, Europako funtsen kudeaketa sistemaren arabera.

### **8.3.- Gardentasuna.**

Gardentasunaren kultura Europako funtsen kudeaketa jardueraren funtsezko elementua da. Ondorioz, funts horien kudeaketa sisteman txertatuta dagoen printzipioa da gardentasuna, uneko araudi orokorrak eta kontratazio publikoaren, dirulaguntzen, eremu ekonomiko-finantzarioaren eta langileen kudeaketaren arloetako erregulazioan xedatutakoarekin bat etorritik. Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren osagaien bati lotutako proiektu, azpiproiektu edo jarduketan kudeaketan gertatzen den kontu ematearen berezko elementua da gardentasuna. Protokolo honen mendeko langileen jardun profesionala gardentasun printzipioaren arabera gidatuko da esleitutako eginkizun eta lanak gauzatzeko. Nolanahi ere, gardentasuna bereziki sustatuko da kontratazio publikoko prozeduretan, dagokion legerian xedatutakoaren arabera.

### **8.4.- Datu pertsonalen babesa.**

Europako funtsen kudeaketan, zenbait kasutan, beharrezkoa izango da datu pertsonalen erabilera masiboa edo datu pertsonalak gurutzatzea, esaterako, irregulartasun administratibo, iruzur, ustelkeria edo interes gatazka kasu hipotetikoak aztertu edo ikertzean, batez ere jardun edo patologia horiek antzemateko helburuarekin. Datu pertsonaletarako sarbidea datuak babesteko indarreko araudiaren arabera egingo da beti (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra eta datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Lege Organikoa). Dirulaguntzen Datu Base Nazionala (BNSD), Gizarte Segurantzaren datu baseak edo Zerga Agentziaren datu baseak, besteak beste, iruzurra antzemateko erabili ahalko dira, arau esparruaren arabera, betiere xedeak interes publikokoak badira. Halaber, datuen prospekziarako edo arriskuak zenbatesteko tresnak erabili ahalko dira (ARACHNE, DAISY, etab.), baldin eta datuak babesteko Europako zein estatuko araudian jasotako printzipioak eta arauak errespetatzen badira. Hori gorabehera, arriskuen ikuspuntutik, beharrezkoak diren tratamendu jardueren erregistroak ezarri ahalko dira, datuak babesteko ordezkariaren jardueraren garapena bermatzeko neurriak hartu ahalko dira, prozesu horiek indarreko araudira egokitzen direla ziurtatzeko, eta arriskuak behar den moduan aztertuko dira, egokiak izan litezkeen inpaktu ebaluazioak eginda.

### **8.5.- Europako funtsen kudeaketa eta 2030 Agenda.**

Europako funtsen kudeaketa, halaber, Garapen Jasangarrirako Helburuek gidatzen, batez ere inpaktu ekologikoa murriztu eta ingurumena eta biodibertsitatea babesten dituzten horiek. Trantsizio berdea, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia planaren oinarrietako bat izanda, arlo horretan kokatzen diren Europako funtsen arduradun eta kudeatzaileen kudeaketa jardunak garatzeko ildo nagusia izango da. Era berean, Protokolo honen mende dauden langileek GJHak betetzen lagunduko dute, sozialki arduratsuak diren jarduketan bidez, enplegua sustatuz eta 2030 Agendak bultzatzen dituen dibertsitatea eta garapen jasangarria ziurtatuz, bereziki kontratazio





Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

publikoarekin, dirulaguntzekin, erakundearen alorreko enplegu sorrerarekin eta lankidetzaz publiko-pribaturako formulekin zerikusia duten jardunetan. Europako funtsekin finantzatzen diren Berreskuratze Planeko osagaietako proiektu, azpiproiektu edo jarduketan kudeaketan, kontuan hartu beharko dira ere lurralde eta gizarte kohesioa eta genero berdintasuna.

#### **8.6.- Zuzendaritza erantzukizuna eta erantzukizun profesionala Europako funtsen kudeaketan.**

Europako funtsen kudeaketan parte hartzen duten zuzendari eta enplegatu publikoek erabateko zuzendaritza erantzukizunarekin eta erantzukizun profesionalarekin jardungo dute, hurrenez hurren. Zuzendaritza erantzukizunak edo erantzukizun profesionalak dedikazio berezia eskatzen du esleitutako eginkizunetan. Horrela, kudeaketa, prozedura edo izapide bakoitzak dakartzan interesak eta posizioak aintzat hartu behar dira, proposamen edo txosten guztiak behar bezala arrazoitu behar dira eta, edozein kasutan ere, eginkizun horien gauzatze okerretik eratorritzen diren ondorioen zein norberaren jokabideen erantzukizuna hartu behar da. Zuzendaritza kudeaketa eta baita enplegatu publikoen kudeaketa ere agintari arduradunen eta kudeaketa agintarien jarraipenaren mende egongo dira, aldi bereko txostenak egingo dira mugari eta helburuen betetzea gainbegiratzeko eta ebaluazioa egingo zaie ere. Dena den, Europako funtsak kudeatzen dituzten unitate administratiboen arduradunek kontuak eman beharko dituzte, dagozkien kudeaketa txosten eta betetze txostenetan adierazitakoaren arabera, batez ere aurreikusitako helburuak lortu ez badira. Funts horien betearazpenean gertatutako gorabeheren berri ere eman beharko dute, bereziki irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazka prebenitu, antzeman eta zuzentzearekin zerikusia badute.

### **IV.- INTERES GATAZKEN INGURUKO INPARTZIALTASUN ETA OBJEKTIBOTASUN BALIOEKIN ZORROZKI LOTUTA DAUDEN JOKABIDE ARAUAK**

#### **9.- Europako funtsen gauzatzean esku hartzen duten ordezkari eta enplegatu publikoei zuzendutako opari, erregalia edo arretari buruzko jokabide arauak, inpartzialtasun eta objektibotasun balioekin eta planteatutako interes gatazkekin lotutakoak.**

9.1.- Europako funtsetatik datozen baliabideen erabaki eta betearazpen prozesuetan parte hartzen duten ordezkari eta enplegatu publikoek jokabide arau hauek errespetatu beharko dituzte beren eginkizunak gauzatzean:

- a) Kontratazio publikoko organoetan parte hartzen duten edo parte hartu dezaketen pertsonak ez dute inolako opari, erregalia edo arretarik onartuko, zuzenki edo zeharka lizitazio prozesuetan parte hartzen duten edo parte hartu dezaketen edo udal administrazioaren hornitzaile izan daitezkeen enpresa edo erakundeetatik badatoz.
- b) Aurreko apartatuan aurreikusitako kasuan, opari eta erregaliak, edo arretak ere, materialak badira, berehala itzuliko zaizkio eskaini dituen pertsona, enpresa edo erakundeari, eta bestelako arretak badira, horiei uko egingo zaie. Itzultzea ezinezkoa balitz, Udalaren bulegoetan utziko dira, opari edo erregalia horien helmuga erabakitzen den arte. Opari, erregalia edo arretatzat joko dira lehentasunezko tratua berezia dakarten onura pertsonal guztiak, ondarearen onurarako direnak edo kargu publiko, funtzionario edo enplegatu publikoaren aldeko abantaila ez justifikatu bat dakartenak, hirugarrenen edo erakundetik kanpoko erakundearen jarduketan baten ondorioz.
- c) Funts horien betearazpenean edo kudeaketan parte hartzen duten edo parte hartu dezaketen pertsonak, kontratazio organoetan parte hartzen ez badute edo parte hartu ezin badute ere, ezingo dute opari, erregalia edo arretarik onartu ere, edozein kontratu motaren bidez udal administrazioaren hornitzaile izan litezkeen pertsona, enpresa edo erakundeetatik badatoz. Erabilera sozialei dagozkien opari, erregalia edo arretak onartu ahalko dituzte soilik, betiere horiek eskaintzen dituzten pertsonak, enpresek edo erakundeek, edo haien senide edo izatezko bikotekideek, ezin badute inolaz ere inolako abantailarik lortu Europako funtsetatik datozen baliabideekin.



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

d) Aurreko arauaren aplikazio eremu subjektiboa mugatzeko, interes gatazkak kudeatzeko orientazioei buruzko Europako Batzordearen 2021/C 121/01 Komunikazioan xedatutakoa aplikatuko da.

#### **IV.- PRESTAKUNTZA ETA INTEGRITATE PROTOKOLOAREN HEDAPENA**

##### **10.- Integritatearen arloko sustapen, hedapen eta prestakuntza etengabeko prestakuntza programetan**

10.1.- Erakundeak, etengabeko prestakuntzako programetan, urtero sartuko ditu zenbait prestakuntza ekintza –aurrez aurrekoak, erdipresentzialak edo birtualak– Protokolo hau ezagutzera emateko, eta integritate publikoaren arloko prestakuntza eskainiko da bereziki, arreta handia jarrita Europako funtsen betearazpenarekin lotura duten kontratazio publiko, dirulaguntza, kudeaketa ekonomiko-finantzario eta langileen kudeaketari.

10.2.- Era berean, esparru publikoko auzi etiko edo integritate auziak, interes gatazkak eta ustelkeriaren aurkako borrokaren analisirako lantegi, konferentzia edo jarduerak antolatzen dituzten ekintzak sustatuko dira urtero.

##### **11.- Erakundearen integritate politika ezagutzera emateko eta prebentziorako beste sistema batzuk.**

11.1.- Aurreko apartatuetan aurreikusitako neurriak gorabehera, erakunde osoaren azpiegitura etikoa hobetzeko, batez ere Europako funtsen kudeaketari dagokionez, protokolo honen edukia ezagutzera ematen laguntzen duten eta prebentzioaren kultura sortu eta arrisku esparruen definizioan ekarpena egiten duten neurri osagarri guztiak sustatuko dira ere, erakundearen integritatea babestu eta haren izen ona ziurtatzeko.

11.2.- Nolanahi ere, protokolo honen edukia bitarteko elektronikoz eta erakundearen webgunearen bidez hedatuko da.

#### **V.- AUZI ETIKOAK, KEXAK ETA SALAKETAK EBAZTEKO BARNE KANALAK ETA PROZEDURAK**

##### **12.- Europako funtsen kudeaketaren inguruko auzi etikoak edo, kasuaren arabera, kexa eta salaketak ere ebazteko kanalak, zirkuituak edo prozedurak sortzea.**

12.1.- Erakundeak, Integritate eta Iruzuraren Aurkako Neurrien Planean xedatutakoarekin bat, beharrezkoak diren prozedura, kanal eta bideak ezarriko ditu protokolo honetan jasotako balio eta printzipioen interpretazio eta irismenari buruz sortu litezkeen izaera bereko auzi etikoak, arazoak edo dilemak izapidetzeko, eta baita Europako funtsen betearazpenaren inguruko jokabide, gertakari edo inguruabarren alderaketari eta aplikazioari buruzkoak ere.

Edozein kasutan ere, 2019/1937 Zuzentarauarekin bat etorritik eta protokolo honetan xedatutakoaren arabera, erakundeak salaketetarako barne kanal bat izango du, arau xedapen horretan eta haren transposizioa egiten duen legerian ezarritako eskakizunak betetzen dituena.

12.2.- Ahal bada, prozedura, kanal edo bide horiek bitarteko elektronikoz funtzionatuko dute, 2019/1937 Zuzentarauan ezarritako modalitateak kaltetu gabe.

12.3.- Auzi etiko, kontsulta, dilema kexa edo salaketak Integritate Batzordeari planteatuko zaizkio.

12.4.- Auzi etiko, kontsulta, dilema edo kexak konfidentzialak izan ahalko dira, edukiaren eta aurkeztu dituen pertsonaren arabera. Horretarako, postontzi elektronikoz bat egongo da.

##### **13.- Europako funtsen kudeaketarekin lotutako salaketen izapidetzea 2019/1937 (EB) Zuzentarauaren arabera eta salatzailea babesteko neurriak.**

13.1.- 2019/1937 (EB) Zuzentarauan xedatutakoarekin bat planteatzen diren Europako funtsen kudeaketari buruzko salaketak, protokolo honetan jasotako balio eta printzipioen ez betetze edo omisio baten ingurukoak badira, eta baita legezko betebeharrekin lotutakoak badira ere,



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

halabeharrez izapidetu beharko dira aipatu Zuzentzarauan eta Integritate Batzordeak helburu horretarako garatzen duen barne erregelamenduan aurreikusitako moduan.

13.2.- Batzordeak egingo du salaketa horien jarraipena, salatzailearen konfidentzialtasuna eta jarduketan sekretua momentu oro mantenduz, eta erantzun arrazoitu bat emango du bide beretik, lehenbailehen eta, edozein kasutan ere, hiru hilabeteko epe barruan edo araudi aplikagarriak xedatzen duen epean.

13.3.- Postontzi elektronikoa bat egongo da kexa eta salaketa horiek izapidetzeko. Kudeaketa ondoretarako, postontzi elektronikoa aurreko apartatuan aurreikusitako postontziarekin bateratu ahalko da, baina salaketak 2019/1937 Zuzentzarauak ezarritako edozein kanaletatik aurkezteko aukera eskaini beharko da, Integritate eta Iruzuraren Aurkako Neurrien Planean aurreikusitako bitartekoak eta erakundeak baliatuz.

13.4.- Integritate Batzordeak salaketen erregistroa eramango du, Datuak Babesteko Erregelamendua eta datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Lege Organikoa errespetatuz. Salaketa edo kexa izenik gabekoa bada, Batzordeak egokiak diren neurriak hartuko ditu hura izapidetu edo artxibatzeke, garapen araudiak salaketa anonimoak onartzen baditu salbu.

13.5.- Salaketetarako barne kanala bat etorriko da 2019/1937 (EB) Zuzentzarauan xedatutakoarekin, arreta berezia jarrita salatzailearen babesari eta Europar Batasuneko Zuzenbidean zein barne Zuzenbiderako transposizioetan aurreikusitako berme guztiak.

13.6.- Europako funtsen kudeaketari buruzko salaketetarako erakundearen barne kanalak ezaugarri hauek izango ditu gutxienez:

- a) Kanal benetan eraginkorra izatea.
- b) Salaketen kanalaren sorrera erakundearen Integritate eta Iruzuraren Aurkako Neurrien Planak aurreikusitako irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak antzeman eta zuzentzeko neurrien artean txertatzea.
- c) Salaketetarako barne kanala behar adina eraginkorra, inpartziala eta efizientea dela ziurtatzea, prozedura zein emaitzei dagokienez.
- d) Salaketetarako barne kanalarik lehentasuna ematea kanpo kanalen aurretik, kanal horiek ere existitzen direla eta osagarriak direla jakinarazteko beharra kalte gabe (webgunearen bidez, kontratatzailearen profilean edo beste edozein bitartekoz). Era berean, salaketa baten larritasun inplizitua dela eta edo delitu izan daitekeelako, aparteko jarraipen, zuzenketa eta, egokia bada, pertsegitze neurriak behar badira, Iruzuraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalari eta agintaritzak arduradunari jakinaraziko zaio salaketa berehala.
- e) Europako funtsen kudeaketarako barne kanala erakundeak duten salaketak kudeatzeko sistemak txertatzea, erakundearen azpiegitura etikoa hobetzeko.
- f) Salaketetarako barne kanalaren kudeaketa eta izapidetze eginkizunak Datuak Babesteko Organo Ordezkararen esku uztea, salaketetarako barne kanal horren kudeaketarako 2019/1937 Zuzentzarauak eskatzen dituen inpartzialtasuna, profesionaltasuna eta eskumena baititu.
- g) Salaketen jarraipena egitea Zuzentzarauak ezarritako epeen barruan eta hant jasotako eskakizunak betez.
- h) Salatzaileei egindako jarraipenaren berri ematea, ahalik eta lasterren eta, beranduenez, hiru hilabeteren buruan.
- i) Salaketa prozedurak segurtasunez eta salatzailearen konfidentzialtasuna errespetatuz izapidetu daitezela ziurtatzea.
- j) Salaketa prozedura guztietan datu pertsonalen babesa errespetatzea, araudi erregulatzailean (DBEO eta datuak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Lege Organikoa) xedatutakoaren arabera.
- k) 2019/1937 (EB) Zuzentzarauak salatzailea babesteko ezartzen dituen berme guztiak aplikatzea, bai eta aplikatzekoa den estatuko edo erkidegoko legerian aurreikus



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

daitezkeen gainerakoak ere.

13.7.- Kexa edo salaketak inplikazio penal edo zehatzaileak baditu, sekretua eta salatzailearen anonimata bermatu beharko dira, eta beharrezko neurriak hartuko dira, indarreko legeriaren arabera, kexa egin duen pertsona babesteko, 2019/1937 (EB) Zuzentarauak aurreikusitakoa betez.

13.8.- Integritate Batzordeak planteatu zaizkion auzi, kontsulta, arazo edo dilema guztien ondorioz emandako gomendio, proposamen edo txosten guztien berri emango du, eta kexa eta salaketen berri ere, baina izenik gabe eta ageri diren datu pertsonalak aldeztirik bananduta. Halaber, urteko memoria bat egingo du Tokiko Gobernu Batzarrari kontuak emateko.

## VI.- PROTOKOLOA BERMATZEKO ORGANOA

### 14.- Integritate Batzordea.

14.1.- Integritate Batzordea da protokolo honen aplikazio bermatzeaz arduratuko den organoa.

14.2.- Integritate Batzordeak hiru kide izango ditu, eta Integritate eta Iruzuraren Aurkako Neurrien Planaren arduradun teknikoaren laguntza jasoko dute, idazkari moduan. Hiru kide horiek alkateak izendatuko ditu. Kideetako bat kargu publiko edo zuzendaria izango da eta Batzordearen presidente moduan jardungo du, beste bat funtzionario edo enplegatu publikoa izango da, ahal bada, Datuak Babesteko Organo Ordezkararen presidentea, idazkari lanetan arituko dena, eta hirugarrena esparru publikoan esperientzia profesional frogatua eta integritate eta zintotasun balio egiaztatutako dituen administrazioetik kanpoko pertsona bat izango da, funtzionario erretiratu edo goi kargu edo zuzendari ohia, izaera eta eskakizun berdinekin, edo, egokia bada, etikarekin lotura duen edo eremu horretan errekonozimendu akademiko edo profesionala lortu duen unibertsitate irakasle bat.

### 15.- Integritate Batzordearen eginkizunak

15.1.- Europako funtsak kudeatzen dituzten kargu publiko, zuzendari eta enplegatu publikoei aplikagarria zaien protokolo honen aplikazio eremuan, hauek izango dira Integritate Batzordearen eginkizunak:

- a) Gobernu organo, zuzendari eta enplegatu publikoei Europako funtsen kudeaketarako integritate aholkularitza ematea. Aholkularitza lan horien barne, protokolo honen aplikazioaren inguruan planteatzen zaizkion zalantza, kontsulta, dilema edo kexak ebatzi ahalko ditu.
- b) Aurkeztu diren salaketa eta kexak izapidetzea, 2019/1937 (EB) Zuzentarauaren eta haren garapen arauen arabera. Ondore horretarako, Integritate Batzordeko kideetako bat instruktore edo, kasuaren arabera, txostengile izendatu ahalko da.
- c) Europako funtsen kudeaketarako integritate gomendioak egitea eremu horren ardura duten erakundeko goi organo eta zuzendariei.
- d) Ager litezkeen interes gatazka egoerak aztertu eta analizatzea, ofizioz, nagusi hierarkikoak hala eskatuta, kontsulta, kexa edo salaketa bidez. Horretarako, proposamen edo gomendio arrazoitu bat zuzenduko dio nagusi hierarkikoari, dagokion erabakia har dezan, horren barne egongo dela, egokia denean, abstentzioa edo esleitutako eginkizunetatik kentzeko ebazpena, inpartzialtasun edo objektibotasun irudia babesteko eta Europar Batasunaren finantza interesak babesteko.
- e) Integritatearen arloko hedapen eta prestakuntza proposamenak egitea.
- f) Salaketen tratamendua egitea, Europako funtsen kudeaketarako Iruzuraren Aurkako Neurrien Planeko 2.3.1.6 b) puntuan azaltzen den moduan.
- g) Integritate Batzordearen aurreko prozeduretan inpartzialtasuna, objektibotasuna, konfidentzialtasuna, datu pertsonalen babesa eta jarduketan sekretua errespetatzen direla ziurtatzea.
- h) Saltzaile edo informatzailearen babes egokia bermatzea, 2019/19378 (EB)



Usurbilgo Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Berreskuratze,  
Eraldaketa eta  
Erresilientzia Plana

Zuzentzarauan eta hura garatzen duen araudian xedatutakoaren arabera.

i) Dagozkion ikerketa eta alderaketak burutu ondoren, neurri prebentiboak hartzeko edo, egokia bada, langileak aldi baterako edo behin betiko beren jarduketa edo esku hartzeetatik banantzeko proposamen arrazoituak egitea, interes gatazka erreal edo potentzialak gerta litezkeen kudeaketa eremuetan, edo itxurazko interes gatazken kasuan ere, erakundearen izen onari eragiten badiote. Proposamenak organo eskudunari helaraziko zaizkio, azter ditzan eta, egokia bada, erabaki bat har dezan.

j) Integritate Batzordearen jarduerari buruzko urteko txostena egitea, kode honetan xedatutakoa betez.

k) Urtean behin, protokolo honen aplikazio gida bat egitea. Hor zehaztu eta mugatuko dira testu honetan aipatzen diren balio eta printzipioen irismen eta aplikazioa, aztertutako kasuen arabera.

l) Protokolo hau egokitu eta aldatzeko eta erakunde osoari eta bere langile guztiei aplikatzeko proposamena egitea, batez ere salaketetarako barne kanalari dagokionez, salatzailearen babesari buruzko 2019/1937 (EB) Zuzentaraua betez.

15.2.- Antzemandako ez betetze batetik diziplina ondorioak, arau hauste administratiboak edo arau hauste penalak erator badaitezke, Integritate Batzordeak, eragindako pertsonari entzunaldia eman ondoren, txosten edo proposamen bat prestatuko du eta organo eskudunari helaraziko dio, zehapen espediente bat abiarazi behar den ala ez ebaluatu dezan, edo, egokia bada, jarduketak beste kontrol erakunde baten edo Fiskaltzaren esku jar ditzan.

15.3.- Integritate Batzordeak barne funtzionamendurako erregelamendu bat egingo du eta Gardentasun Atarian argitaratuko du.

## **16.- INTEGRITATE PROTOKOLOA ZABALTZEA**

16.1.- Tokiko Gobernu Batzarrak hala erabakita, Integritate Batzordearen proposamenez, protokolo hau kargu publiko (ordezkari eta) exekutibo, zuzendari, behin-behineko langile eta enplegatu publiko guztiei zabaltzeko aukera egongo da, Europako funtsen kudeaketarekin zuzenean zein zeharkako lotura izan dezaketen neurrian, eta beharrezkoak diren egokitzapenak gauzatu ahalko dira, testuan txertaketak eginda edo eranskin baten bidez.

16.2.- Halaber, protokolo hau oinarri moduan erabiliko da, bere printzipio, balio eta berme organoaren arautzeari dagokienez, erakundearen kode etiko eta jokabide kodea prestatzeko edo, kasuaren arabera, integritate sisteman txertatzen diren bestelako jokabide kodeak prestatzeko.

16.3.- Ondore horretarako, Udalak, planean ezarritako epeen barruan, kode etiko edo jokabide kode bat, edo zenbait jokabide kode, egin eta onetsiko du/ditu. Kode horiek egokitu egingo dira, jasota ez dauden balio edo printzipioak edukian txertatzeko edo esakuneak aldatzeko, protokolo hau kodearen eranskin moduan txertatu bada salbu, dagozkion egokitzapenekin.